*• gutxienez hiru lagin kiloko 100 mg baino gehiagorekin eta bat kiloko 1.000 mg baino gehiagorekin ikastetxearen hegoaldean.*

*• kiloko 100 mg-tik gorako gutxienez lagin bat kiroldegiaren lursailaren mendebaldean,*

*Irabazi Donostia que decía textualmente.*

*“2. Hasta que se determine con fiabilidad la extensión total de suelo contaminado por amianto (zonas tapadas por revestimientos artificiales), el Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a solicitar, provisional y cautelarmente al Gobierno Vasco, una actualización de los suelos potencialmente contaminados en Altza con las características siguientes:*

*• inclusión de los centros de enseñanza infantil y primaria Harri Berri  y Oleta LHI.*

*• inclusión de la calle Darieta (limítrofe al norte con el antiguo polideportivo) desde su intersección con el paseo Casares al oeste, hasta la altura del numero 47 al este.*

*• ensanchamiento de 30m, hacia el este, el oeste y el sur, de las zonas actualmente identificadas como potencialmente contaminadas por Ihobe, excluyendo aquellas edificaciones construidas con anterioridad al derribo de la fábrica.”*

*Por otro lado se han realizado muestras de suelo que han han dado positivo a la presencia de amianto, en concentraciones superiores a 100 mg/kg (límite en la norma holandesa que sirve de referencia, según el “Proyecto de recuperación ambiental de la vaguada Larres”, debido a la escasa experiencia tanto en la CAPV como en el ámbito estatal en problemáticas de suelos contaminados con amianto), e incluso superiores a 1.000 mg/kg (límite definido en el Reglamento del Parlamento Europeo y del Consejo, de substancias clasificadas como carcinógenas de categoría 1A):*

*• por lo menos tres muestras con más de 100 mg/kg y una muestra con más de 1.000 mg/kg al sur del centro educativo.*

*• Por lo menos una muestra con más de 100 mg/kg al oeste de la parcela del polideportivo*

*• kiloko 100 mg-tik gorako gutxienez lagin bat eta kiloko 1.000 mg-tik gorako beste bi lagin aparkalekuaren lursailaren ekialdean (ikastetxearen ekialdean).*

*• Por lo menos una muestra con más de 100 mg/kg y dos muestra con más de 1.000 mg/kg al este de la parcela del parking (al este del centro educativo).*

*Azkenik, amiantoa aurkitu da ikastetxeko parterreetan, eta Administrazioak estali egin du alde hori prebentziozko neuri gisa. Horrek agerian uzten du amiantoa dagoela baita ikastetxearen lursaileko lurzoruan ere.*

*Por último, se ha encontrado amianto en los parterres del centro educativo, lo que ha llevado a la Administración a realizar un tapado preventivo de los mismos. Esto demuestra que hay amianto en el suelo en la parcela del centro educativo también.*

*Hala eta guztiz ere, gune horiek guztiak daude Eusko Jaurlaritzak kutsatuta egon daitezkeen lurzorutzat zehaztutako eremuetatik kanpo.*

*Sin embargo, todos estos puntos están fuera de las zonas definidas por el Gobierno Vasco como suelos potencialmente contaminados.*

*MOZIOA ARRUNTA*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Altzako kiroldegiaren inguruan kutsatuta egon daitezkeen eremuen mapa eguneratzeko, kontuan izanik lurzoruan bideratutako zundaketa kanpainetan lortutako datuak eta 2017ko urriaren 26an aho batez onartu zen kontrol mozioan azaldu zen zonakatzea erreferentziatzat hartuz:*

*1.- El Ayuntamiento en Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a realizar una actualización del mapa de zonas potencialmente contaminadas del entorno del polideportivo de Altza, tomando en cuenta los datos obtenidos en las diferentes campañas de catas de suelo y tomando como referencia la zonificación señalada en la moción de control aprobada por unanimidad el 26 de octubre de 2017:*

*• Harri Berri eta Oleta LHI haur eta lehen hezkuntzetako ikastetxeak.*

*• Centros de enseñanza infantil y primaria Harri Berri y Oleta LHI.*

*• Darieta kalea (iparraldean kiroldegi zaharrarekin muga duena), mendebaldean Kasares pasealekuarekin elkartzen den lekutik ekialdean 47 zenbakiaren pareraino.*

*• Calle Darieta (limítrofe al norte con el antiguo polideportivo) desde su intersección con el paseo Casares al oeste, hasta la altura del numero 47 al este.*

*• 30 metroko zabalkuntza ekialdera, mendebaldera eta hegoaldera, Ihobek potentzialki kutsatutzat identifikatutako eremuetan, fabrika lurrera bota baino lehen egindako eraikinak alde batera utzita.*

*• ensanchamiento de 30 metros, hacia el este, el oeste y el sur, de las zonas actualmente identificadas como potencialmente contaminadas por Ihobe, excluyendo aquellas edificaciones construidas con anterioridad al derribo de la fábrica.*

*2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari kutsatuta egon daitezkeen eremuen mapan Altzako kiroldegiaren inguruan (baratzen zonaldea,...) aztertzeke dauden azterketen emaitzen ondorioz beharrezkotzat joko diren*

*2.- El Ayuntamiento en Pleno de San Sebastián insta al Gobierno Vasco a seguir incorporando en el mapa de zonas potencialmente contaminadas las actualizaciones que resulten precisas como consecuencia del resultado de los análisis pendientes en el entorno del polideportivo de*

*eguneratzeak gehitzeko".*
=====================================

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita hamarrean.

*Altza (zona de huertas,...)".*
=====================================

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a treinta de octubre de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /".

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso".

---------------

**6. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostian aldiriko tren sarearen egoera dela eta.**

**KENDUA.**

**6. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación de la red de trenes de cercanías de San Sebastián.**

**RETIRADA.**

---------------

**7. Mozio arrunta, EH BILDU taldeak aurkeztua, Loiolako kuartelak lehenbailehen husteko erabakia dela-eta.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Loiolako Kuartelak lehenbailehen husteko erabakia dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

**7. Moción ordinaria, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el acuerdo de dejar libres los cuarteles de Loiola cuanto antes.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, sobre el acuerdo de dejar libres los cuarteles de Loiola cuanto antes.

JUSTIFICACIÓN

2015eko abenduaren 22an Donostiako Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen:

“3. Loiolako kuartelak, Espainiako poliziaren eraikina Amara Zaharrean, eta Lore-Toki behortegia

- Berrestea Donostia hiriaren interesekoa dela erostea egun Armadak erabiltzen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, bai eta Amara Zaharrean polizia espainiarraren egoitzak okupaturiko lursaila ere, hartara, gune horiek guztiak erabili ahal izateko Donostian etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazko beharrari irtenbide proaktiboa emateko, eta, hortaz, beharrezko negoziazioei ekiteko eskatzea.

- Adieraztea Donostiako Udalaren interesekoa dela Gobernu Zibila izeneko eraikina, udal ekipamendutzat erabiltzeko, Amarako auzotarrek, Donostiako kultur eta gizarte eragileek eta, orokorrean, donostiar guztiek erabili eta hartaz gozatzeko.

- Berrekitea Udalak Lore-Toki behortegiaren lurra benetan erosi ahal izateko negoziazioei, aisialdi eta kirol gunetzat erabili ahal izateko.”

2016ko Aurrekontuen Egitasmoaren eztabaidaren baitan Udalbatzak hartu zuen erabaki honetatik azpimarratzekoa da Udalbatzak agertu zuen kezka lehen puntuari dagokionez; hau da, etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazkotzat jo zituen eremuak direla-eta, tartean Loiolako Kuartelak. Horrekin batera, bestalde, jakina da, etxebizitza parke publikoaren hazkundea asetzearekin batera,

El 22 de diciembre de 2015, el Pleno de San Sebastián decidió lo siguiente:

“3. Cuarteles de Loiola, edificio de la Policía española en Amara Viejo y la yeguada de Lore Toki

- Reiterar el interés de la ciudad por adquirir los terrenos ocupados en la actualidad por las instalaciones del Ejército y utilizadas por el Ministerio de Defensa, conocidas como Cuarteles de Loiola, así como la parcela ocupada por las antiguas dependencias en Amara Zaharra de la policía española, con objeto de emplearlos en dar una salida proactiva a la urgente necesidad de dotar de un parque público de vivienda sólido en la ciudad, y, para ello, requerir que se emprendan las negociaciones pertinentes.

- Declarar el interés del Ayuntamiento en la recuperación del edificio conocido como Gobierno Civil, para destinarlo a equipamiento municipal para el uso y disfrute de los vecinos y vecinas del barrio de Amara, así como de agentes sociales y culturales de la ciudad y de las y los donostiarras, en general.

- Retomar las negociaciones necesarias para hacer efectiva la adquisición por el Ayuntamiento de los terrenos de la yeguada de Lore-Toki, para destinarlo a lugar de esparcimiento y deportivo.”

Del acuerdo adoptado por el Pleno en el debate del Proyecto de Presupuestos para 2016, debe subrayarse la preocupación que mostraba la Corporación respecto al primer punto, es decir, sobre las zonas consideradas como indispensables de cara a la consecución de un parque público de vivienda, entre las que se encontraban los cuarteles de Loiola. Además, por otro lado, es de sobra conocido

eremu hori hiriarentzat berreskuratzea estrategikoa dela, oztopo hidraulikoak ezabatze aldera bertan egin behar diren interbentzioak tarteko.

que, al tiempo que se satisface la necesidad de incrementar el parque público de vivienda, resulta estratégico recuperar esa zona para la ciudad, entre otros aspectos, por las intervenciones que se deben realizar en esa zona para eliminar los obstáculos hidráulicos.

Aurrekoak horrela, maiatzaren 24an Donostiako Udalbatzak honako hau erabaki zuen, Loiolako Kuartelak Donostiako etxebizitzetarako berreskuratzeko beharra dela-eta:

Así las cosas, el 24 de mayo el Pleno de San Sebastián adoptó el siguiente acuerdo sobre la necesidad de recuperar los cuarteles de Loiola para destinarlos a viviendas:

“Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Espainiako Gobernuari gaur egun Armadak erabiltzen dituen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, Donostiako Udalaren esku behin betiko uzteko, adosten diren terminoen arabera eta dagozkion prozedura guztiak eginda, kontuan hartuta bertan Donostiak Etxebizitza Babestuen sustapena egiteko duen beharra.”

“El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián emplaza al Gobierno de España a poner definitivamente en manos del Ayuntamiento de San Sebastián las instalaciones propiedad del Ministerio de Defensa, que utiliza en la actualidad el Ejercito, los denominados cuarteles Loyola, de acuerdo a los términos que se consensúen y realizando cuantos procedimientos sean precisos, teniendo en cuenta la necesidad que tiene San Sebastián realizar en esa zona vivienda de protección oficial”.

Hala Donostiako Udalbatzak Loiolako Kuartelak Donostiako Udalaren esku behin betiko uzteko beharraren inguruan iritzi bateratua duenez gero, Udal Gobernuak aukera izan du Espainiar Estatuko gobernua jakitun egiteko, Donostiak etxebizitzaren inguruan daukan problematika larriari dagokionagatik, Loiolako kuartelen espazioa ez eskuratzeak kentzen dion aukera ordezkaezinaz.

Por tanto, dado que el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián comparte por unanimidad la necesidad de que los cuarteles de Loiola queden en manos del Ayuntamiento de San Sebastián, el Gobierno municipal ha tenido ocasión de poner al tanto de ello al Gobierno del Estado, en lo que se refiere a la grave problemática que tiene San Sebastián en torno la vivienda, de la oportunidad irreemplazable de la que le desposee el no recibir el espacio de los cuarteles de Loiola.

Bestalde begien bistakoa da Loiolako kuartelek okupatzen duten espazioa berreskuratzeko terminoen inguruan ikuspegi desberdinak daudela. Hain zuzen ere maiatzetik hona arazoaren muina kuartelek okupatzen duten espazioa ordezkatzeko beharrean datzala

Por otro lado, resulta evidente que existen puntos de vista diversos respecto a los términos en los que se debe producir la recuperación del espacio ocupado por los cuarteles de Loiola. De hecho, desde mayo a la actualidad, parece que la sustancia del

dirudi, indarra kuartelak husteko beharrean jarri ordez. Ondorioz, berriz ere Madrilen erabakiak hartu behar dituztenei mezu kontraesankorrak helarazten zaizkie, hustuketaren urgentziaz jabetu ordez. Horregatik beharrezkoa da Espainiar Estatuko gobernu berriari jakinaraztea, Loiolako kuartelei dagokienean, zein den hartu beharreko lehen erabakia, bere funtsaz, garrantziaz eta urgentziaz jabetu dadin; alegia, lehendabizi erabaki beharrekoa Loiolako kuartelak hustea da, Donostiak bere etorkizun hurbilean hazkunde egoki, jasangarri eta orekatua garatzeko aukera izan dezan.

problema consiste en la necesidad de sustituir el espacio que ocupan los cuarteles en la actualidad, en lugar de poner el énfasis en la necesidad de dejar vacíos los cuarteles. Por tanto, de nuevo, se hacen llegar mensajes contradictorios a quienes deben decidir en Madrid, en lugar de hacerles darse cuenta de la urgencia de desocuparlos. Es por ello por lo que resulta imprescindible hacer saber al nuevo Gobierno del Estado español, por lo que se refiere a los cuarteles de Loiola, cuál es la primera decisión a adoptar, para que se aperciba de su fondo, importancia y urgencia; es decir, que la primera decisión debe ser la de abandonar los cuarteles de Loiola, para que San Sebastián tenga la posibilidad en un futuro próximo de poder decidir un crecimiento adecuado, sostenible y equilibrado.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:

Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta esta moción ordinaria

MOZIOA ARRUNTA

MOCIÓN ORDINARIA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Espainiar Estatuko Gobernuari gaur egun Armadak erabiltzen dituen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, husteko erabakia lehenbailehen har dezan.

1. El Ayuntamiento de San Sebastián emplaza al Gobierno del Estado español a que adopte cuanto antes el acuerdo de dejar libres las instalaciones del Ministerio de Defensa utilizadas por el Ejército, los denominados cuarteles de Loiola.

Donostian, 2018ko urriaren 5ean

En San Sebastián, a 5 de octubre de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko bozeramailea“.

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
portavoz del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak, Loïc Alejandro jaunak, Miren Albistur Garmendia andreak, Alkate-Udalburuak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, D. Loïc Alejandro, D.ª Miren Albistur Garmendia y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**PSE-EE TALDEAK AURKEZTUTAKO 1.GO ZUZENKETAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA ENMIENDA N.º 1 PRESENTADA POR EL GRUPO PSE-EE :**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**7. GAIAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL ASUNTO N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 6 – EH BILDU.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**HARTUTAKO ERABAKIAREN BEHIN BETIKO TESTUAREN EGIAZTAGIRIA:**

Donostiako Udalbatzak, bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita bostean izandako ohiko osoko bilkuran, EH Bilduk Loiolako kuartelak lehenbailehen libre uzteko erabakiari buruz aurkeztutako mozio arrunta onartu zuen, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak erabaki zatiko puntu bakarra aldatzeko egin zuen zuzenketa ere gehituta. Hortaz, behin betiko onartutako testua honela gelditu da:

**CERTIFICADO DEL TEXTO DEFINITIVO DEL ACUERDO ADOPTADO:**

Que el Excelentísimo Ayuntamiento Pleno en Sesión Ordinaria celebrada el día veinticinco de octubre de dos mil dieciocho, aprobó la siguiente Moción Ordinaria presentada por el Grupo EH BILDU sobre el acuerdo de dejar libres los Cuarteles de Loiola cuanto antes, que incorpora una enmienda aprobada, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras - PSE-EE, de sustitución del único punto de la parte resolutiva, siendo el texto definitivamente aprobado el siguiente:

*“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Loiolako Kuartelak lehenbailehen husteko erabakia dela-eta.*

*JUSTIFIKAZIOA*

*2015eko abenduaren 22an Donostiako Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen:*

*“3. Loiolako kuartelak, Espainiako poliziaren eraikina Amara Zaharrean, eta Lore-Toki behortegia.*

*- Berrestea Donostia hiriaren interesekoa dela erostea egun Armadak erabiltzen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, bai eta Amara Zaharrean polizia espainiarraren egoitzak okupaturiko lursaila ere, hartara, gune horiek guztiak erabili ahal izateko Donostian etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazko beharrari irtenbide proaktiboa emateko, eta, hortaz, beharrezko negoziazioei ekiteko eskatzea.*

*- Adieraztea Donostiako Udalaren interesekoa dela Gobernu Zibila izeneko eraikina, udal ekipamendutzat erabiltzeko, Amarako auzotarrek, Donostiako kultur eta gizarte eragileek eta, orokorrean, donostiar guztiek erabili eta hartaz gozatzeko.*

*- Berrekitea Udalak Lore-Toki behortegiaren lurra benetan erosi ahal izateko negoziazioei, aisialdi eta kirol gunetzat erabili ahal izateko.”*

*2016ko Aurrekontuen Egitasmoaren eztabaidaren baitan Udalbatzak hartu zuen erabaki honetatik azpimarratzekoa da Udalbatzak agertu zuen kezka lehen puntuari dagokionez; hau da, etxebizitzen parke publiko finkoa egiteko premiazkotzat jo zituen eremuak direla-eta, tartean Loiolako*

*“Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, portavoz del grupo municipal de EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presento la siguiente MOCIÓN ORDINARIA, sobre el acuerdo de dejar libres los cuarteles de Loiola cuanto antes.*

*JUSTIFICACIÓN*

*El 22 de diciembre de 2015, el Pleno de San Sebastián decidió lo siguiente:*

*“3. Cuarteles de Loiola, edificio de la Policía española en Amara Viejo y la yeguada de Lore Toki.*

*- Reiterar el interés de la ciudad por adquirir los terrenos ocupados en la actualidad por las instalaciones del Ejército y utilizadas por el Ministerio de Defensa, conocidas como Cuarteles de Loiola, así como la parcela ocupada por las antiguas dependencias en Amara Zaharra de la policía española, con objeto de emplearlos en dar una salida proactiva a la urgente necesidad de dotar de un parque público de vivienda sólido en la ciudad, y, para ello, requerir que se emprendan las negociaciones pertinentes.*

*- Declarar el interés del Ayuntamiento en la recuperación del edificio conocido como Gobierno Civil, para destinarlo a equipamiento municipal para el uso y disfrute de los vecinos y vecinas del barrio de Amara, así como de agentes sociales y culturales de la ciudad y de las y los donostiarras, en general.*

*- Retomar las negociaciones necesarias para hacer efectiva la adquisición por el Ayuntamiento de los terrenos de la yeguada de Lore-Toki, para destinarlo a lugar de esparcimiento y deportivo.”*

*Del acuerdo adoptado por el Pleno en el debate del Proyecto de Presupuestos para 2016, debe subrayarse la preocupación que mostraba la Corporación respecto al primer punto, es decir, sobre las zonas consideradas como indispensables de cara a la consecución de un parque público de vivienda, entre las que*

*Kuartelak. Horrekin batera, bestalde, jakina da, etxebizitza parke publikoaren hazkundea asetzearekin batera, eremu hori hiriarentzat berreskuratzea estrategikoa dela, oztopo hidraulikoak ezabatze aldera bertan egin behar diren interbentzioak tarteko.*

*se encontraban los cuarteles de Loiola. Además, por otro lado, es de sobra conocido que, al tiempo que se satisface la necesidad de incrementar el parque público de vivienda, resulta estratégico recuperar esa zona para la ciudad, entre otros aspectos, por las intervenciones que se deben realizar en esa zona para eliminar los obstáculos hidráulicos.*

*Aurrekoak horrela, maiatzaren 24an Donostiako Udalbatzak honako hau erabaki zuen, Loiolako Kuartelak Donostiako etxebizitzetarako berreskuratzeko beharra dela-eta:*

*Así las cosas, el 24 de mayo el Pleno de San Sebastián adoptó el siguiente acuerdo sobre la necesidad de recuperar los cuarteles de Loiola para destinarlos a viviendas:*

*"Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak dei egiten dio Espainiako Gobernuari gaur egun Armadak erabiltzen dituen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, Donostiako Udalaren esku behin betiko uzteko, adosten diren terminoen arabera eta dagozkion prozedura guztiak eginda, kontuan hartuta bertan Donostiak Etxebizitza Babestuen sustapena egiteko duen beharra."*

*"El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián emplaza al Gobierno de España a poner definitivamente en manos del Ayuntamiento de San Sebastián las instalaciones propiedad del Ministerio de Defensa, que utiliza en la actualidad el Ejercito, los denominados cuarteles Loyola, de acuerdo a los términos que se consensúen y realizando cuantos procedimientos sean precisos, teniendo en cuenta la necesidad que tiene San Sebastián realizar en esa zona vivienda de protección oficial".*

*Hala Donostiako Udalbatzak Loiolako Kuartelak Donostiako Udalaren esku behin betiko uzteko beharraren inguruan iritzi bateratua duenez gero, Udal Gobernuak aukera izan du Espainiar Estatuko gobernua jakitun egiteko, Donostiak etxebizitzaren inguruan daukan problematika larriari dagokionagatik, Loiolako kuartelen espazioa ez eskuratzeak kentzen dion aukera ordezkaezinaz.*

*Por tanto, dado que el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián comparte por unanimidad la necesidad de que los cuarteles de Loiola queden en manos del Ayuntamiento de San Sebastián, el Gobierno municipal ha tenido ocasión de poner al tanto de ello al Gobierno del Estado, en lo que se refiere a la grave problemática que tiene San Sebastián en torno la vivienda, de la oportunidad irreemplazable de la que le desposee el no recibir el espacio de los cuarteles de Loiola.*

*Bestalde begien bistakoa da Loiolako kuartelek okupatzen duten espazioa berreskuratzeko terminoen inguruan ikuspegi desberdinak daudela. Hain zuzen ere maiatzetik hona arazoaren muina kuartelek okupatzen duten espazioa ordezkatzeko beharrean datzala dirudi, indarra kuartelak husteko beharrean jarri ordez. Ondorioz, berriz ere Madrilen erabakiak hartu behar dituztenei mezu kontraesankorrak helarazten zaizkie, hustuketaren urgentziaz jabetu ordez.*

*Por otro lado, resulta evidente que existen puntos de vista diversos respecto a los términos en los que se debe producir la recuperación del espacio ocupado por los cuarteles de Loiola. De hecho, desde mayo a la actualidad, parece que la sustancia del problema consiste en la necesidad de sustituir el espacio que ocupan los cuarteles en la actualidad, en lugar de poner el énfasis en la necesidad de dejar vacíos los cuarteles. Por tanto, de nuevo, se hacen llegar mensajes*

*Horregatik beharrezkoa da Espainiar Estatuko gobernu berriari jakinaraztea, Loiolako kuartelei dagokienean, zein den hartu beharreko lehen erabakia, bere funtsaz, garrantziaz eta urgentziaz jabetu dadin; alegia, lehendabizi erabaki beharrekoa Loiolako kuartelak hustea da, Donostiak bere etorkizun hurbilean hazkunde egoki, jasangarri eta orekatua garatzeko aukera izan dezan.*

*Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honako mozio arrunt hau aurkezten du:*

*MOZIOA ARRUNTA*

*“Donostiako Udalbatzak dei egiten dio Espainiako Gobernuari Donostiako Udalarekin negoziatzen hasteko, udalaren esku uzteko gaur egun Armadak erabiltzen dituen eta Defentsa Ministerioarenak diren instalazioak, Loiolako Kuartelak deritzenak, adosten dituzten terminoen arabera eta dagozkion prozedura guztiak eginda, egun duten erabilerarekin bateragarriago den beste leku batera aldatzeko kuartelak, hala, egungo kokalekuan babes ofizialeko programa trinko bat gauzatu ahal izateko, kontuan izanda Donostiak oso beharrezko duela alde horretan zein Donostiako beste zona batzuetan babes ofizialeko etxebizitzak egitea”. ============*

*contradictorios a quienes deben decidir en Madrid, en lugar de hacerles darse cuenta de la urgencia de desocuparlos. Es por ello por lo que resulta imprescindible hacer saber al nuevo Gobierno del Estado español, por lo que se refiere a los cuarteles de Loiola, cuál es la primera decisión a adoptar, para que se aperciba de su fondo, importancia y urgencia; es decir, que la primera decisión debe ser la de abandonar los cuarteles de Loiola, para que San Sebastián tenga la posibilidad en un futuro próximo de poder decidir un crecimiento adecuado, sostenible y equilibrado.*

*Por todo ello, el grupo municipal EH Bildu presenta esta moción ordinaria*

*MOCIÓN ORDINARIA*

*“El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián emplaza al Gobierno de España a iniciar un proceso de negociación con el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián para poner a su disposición las instalaciones propiedad del Ministerio de Defensa, denominadas Cuarteles de Loiola, que utiliza en la actualidad el Ejército, de acuerdo a los términos que se consensúen y realizando cuantos procedimientos sean necesarios para permitir su reubicación en otro espacio más acorde con la utilización actual de los mismos con el oibjetivo de desarrollar, en su ubicación actual, un intenso programa de Vivienda de Protección Oficial, teniendo en cuenta la necesidad que tiene Donostia/San Sebastián de realizar, en esa y otras zonas de la ciudad, viviendas protegidas”. ==================*

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Egiaztagiri hau egin, izenpetu eta zigilatu dut, Alkatetzak aginduta eta onetsita, Donostian, bi mila eta hemezortziko azaroaren zortzian.

Y para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta Certificación, visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a ocho de noviembre de dos mil dieciocho.

ALKATEAK O. E. /”.

V. º B. º DEL ALCALDE,

Eneko Goia Laso".

---------------

**II.2**

**KONTROL MOZIOAK**

**II.2.1. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, hiriko alde jakin batzuetan hotel, ostatu, pentsio edo antzeko jarduerak saturatuta dauden aztertu beharra dagoela eta.**

"EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrek, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkezten nahi dio Udalbatzari, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak irailaren 17an izan zuen bileran hiriko alde jakin batzuetan hotel, ostatu, pentsio edo antzeko jarduerak saturatuta dauden aztertzeko beharra dagoela eta egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Etengabe ari dira irekitzen hotel, ostatu, pentsio edo antzeko jarduerak; askotan, bizitegi erabilera aldatuta, eta are eraikin osoaren erabilera aldatuta ere. Hori dela eta, beharrezkoa eta komenigarria da berariaz aztertzea kontu hori, hirigintza antolamenduaren ikuspegitik.

Hala, zonaz zona neurtu behar dira eskainitako ohe kopuruaren eta bizitegi higiezinen arteko

**II.2**

**MOCIONES DE CONTROL**

**II.2.1. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre la necesidad de estudiar la posible saturación de actividades hoteleras, de hospedaje, pensiones o similares en determinadas zonas de la ciudad.**

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno, sobre la necesidad de estudiar la posible saturación de actividades hoteleras, de hospedaje, pensiones o similares en determinadas zonas de la ciudad. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio el pasado 17 de septiembre.

JUSTIFICACIÓN

La apertura constante de nuevas actividades hoteleras, de hospedaje, pensiones o similares, en muchos casos solicitando la transformación del uso residencial e incluso transformando el uso del edificio completo, hace que sea necesario y conveniente analizar específicamente, desde un punto de vista de ordenación urbanística, dicha cuestión.

Así, se hace preciso medir zonalmente, los ratios existentes entre número de camas

ratioak, zehaztu egin behar da ehuneko zenbat izan daitezkeen bizitegiz bestelako jarduerak, aztertu egin behar da zer ratiok ekar dezakeen zona bat asetzat jotzea halako jarduerak irekitzeari dagokionez.

ofertadas e inmuebles residenciales, determinar el porcentaje de actividades no residenciales absorbible, estudiar la determinación de los ratios que puedan requerir la posible saturación zonal de la nueva apertura de este tipo de actividades.

Udal Gobernuari horren inguruan galdetu eta Hirigintza Sostengagarriko, Etxebizitzako eta Hiri Proiektuetako zinegotzi ordezkariak erantzun zigun hiri ereduari zegokion gaia zela, ordu arte inork ere ez zuela planteatu, haiei ere ez zitzaiela beharrezkoa iruditu, eta horregatik ez zutela azterketa hori egiteko eskatu, Parte Zaharrarena besterik. Hala ere, esan zuen baten batek planteatuz gero, bazegoela gaia aztertzeko bidea, hark ez zuela ezezkorik esaten eta.

Interpelado al respecto el Gobierno Municipal, el delegado de Urbanismo Sostenible, Vivienda y Proyectos de Ciudad nos contestó que era una cuestión que afectaba al modelo de ciudad, que no se había encargado dicho estudio, salvo en lo concerniente a la Parte Vieja, porque nadie lo había planteado, ni se había considerado, hasta la fecha, necesario. No obstante manifestó que se podría analizar dicha cuestión, ya que no está cerrado a ello, si alguien lo plantease.

Horiek horrela direla, hauxe da nire KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, el concejal que suscribe, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio gobernu taldeari azterketa bat eskatzeko, edo egiteko, diren bizitoki guneetan zer ehuneko den ikusteko bizitoki jardueretarako eta bizitoki jardueretarako ez direnena.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al equipo de gobierno local a encargar o realizar un estudio que permita determinar, en cada una de las distintas áreas residenciales, el porcentaje de actividades residenciales y no residenciales que existen en el mismo.

2.- Era berean, hertsatuki eskatzen dio, aztertzeko hiriko alde jakin batzuetan hotel, ostatu, pentsio edo antzeko jarduera kontzentraziorik den, datu horien argitan ikusteko gero ea muga batzuk jar daitezkeen gune edo zona horiek saturatuta direla adierazteko.

2.- De la misma manera, se insta a que se estudie la posible concentración de actividades hoteleras, hospedaje, pensiones, apartamentos turísticos o similares en determinadas zonas de la ciudad; todo ello al objeto de considerar, al hilo de los datos obtenidos, la posibilidad de establecer determinadas limitaciones que declaren una posible saturación de las mismas en dicho ámbito o zona.

3.1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal gobernuari aztertzeko eta zehazteko zer ostatu eskaintza dagoen hirian (zenbat ohe den), dauden ostatu modalitate guztietan; eta aztertzeko, orobat, ea orain den

3.1.- El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al gobierno a estudiar y determinar la oferta de alojamiento existente en la ciudad (número de camas), en sus distintas modalidades, así como a estudiar la suficiencia

eskaintza nahikoa den edo ez den.

3.2.- Den ostatu eskaintzaren eta izan nahi dugu hiri ereduaren gainean gogoeta egin ahal izateko, eragindako kontseiluekin aztertzea gaia: Planeamenduko Aholku Batzordea, Turismoko Aholku Batzordea, Mugikortasuneko Aholku Batzordea, Merkataritzako Aholku Batzordea, eta abar.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

Izpta.: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

o insuficiencia de la oferta actualmente existente.

3.2.- Al objeto de reflexionar sobre la oferta de hospedaje existente y el modelo de ciudad al que queremos dirigirnos, se tratará dicha cuestión en los distintos consejos afectados: Consejo Asesor de Planeamiento, Consejo de Turismo, Consejo Social, Consejo Asesor de Movilidad, Consejo de Comercio,...

En Donostia a 19 de octubre de 2018

Fdo.: Ricardo Burutaran Ferré
Concejal del grupo municipal de EH BILDU".

Eztabaida hasita, Ricardo Burutaran Ferre jaunak, Loïc Alejandro jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. Ricardo Burutaran Ferré, D. Loïc Alejandro y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.2. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, "Illunbe Arena" espazioaren erabilerari buruzkoa.**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU

**II.2.2. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU relativa al uso del espacio "Illunbe Arena".**

"Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga, concejala

udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko ekainaren 11ko Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas del 11 de junio de 2018.

JUSTIFIKAZIOA

Duela urtebete, 2017ko urrian Udalbatzak honako erabaki hau hartu zuen: “Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Ilunbe erabilpen askotarako gune izateko proiektua landu dezala kirol eta kultur eragileekin batera”. Izan ere, gaiarekin bat etorrita, gero horri buruzko azalpenak emateko konpromisoetan sakondu du Udalbatzak.

Duela lau hilabete gaia udal batzordera eraman genuen, hilabete ugari pasatu ondoren, aipaturiko egitasmoari buruz txintik ere ez genekielako. Udal Gobernuaren partetik erantzun zitzaigun lanean ari zirela hainbat aukera eskuartean, aspektu tekniko ugari aztergai, antzeko egitasmoak bisitatzen, kanpoko obrek eragingo dituzten afekzioak ere kontuan hartzen... zirriborroa ia itxita, gauzatxoren bat oraindik argitzeke. Bukatu eta aurkezteko konpromisoa ere hartu zuen Udal Gobernuak batzordean bertan, baina ia bukatuta zegoena ez da iritsi. Horrela ez dira bete Udal Gobernuak agindutakoak, ez iazkoak, ez aurtengoak.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año, más concretamente, en octubre de 2017, el Pleno Municipal adoptó un acuerdo, en el cual el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián solicitaba al Gobierno Municipal que elaborara, junto con las y los agentes deportivos y culturales, un proyecto para convertir Illunbe en un espacio multiusos. De hecho, de acuerdo con la cuestión, más tarde el Pleno ha profundizado en los compromisos para dar las oportunas explicaciones.

Hace cuatro meses, llevamos el tema a la Comisión Municipal, porque, aunque había transcurrido mucho tiempo, no sabíamos absolutamente nada sobre el proyecto. El Gobierno Municipal nos respondió que estaban trabajando en el tema y que barajaban varias opciones; también dijeron que quedaban muchos aspectos técnicos por analizar, que estaban visitando proyectos similares, que había que tener en cuenta las afecciones de las obras externas…. Según manifestaron, el borrador estaba ya casi cerrado, aunque quedaba alguna cuestión menor todavía por aclarar. El Gobierno Municipal asumió, en la propia comisión, el compromiso de finalizar el borrador y presentar el proyecto, pero, aunque, según sus palabras, estaba casi terminado, aún no ha llegado a nuestras manos. Por lo tanto, el Gobierno Municipal no ha cumplido sus compromisos: ni los adoptados el año pasado ni los de este año.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako KONTROL MOZIOA:

Por todo ello, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1 - Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio, Ilunbe espazioaren erabilerei dagokienez, Udalbatzak 2017ko urriaren 26an onarturiko mozioa bete dezala 2018. urtea bukatu aurretik.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que, antes de que finalice el 2018, cumpla la moción aprobada en la sesión plenaria del 26 de octubre de 2017, relativa a los usos del espacio Illunbe.

2 - Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio Ilunbe espazioaren erabilpen askotarako gune izateko proiektua aurkezteko Kirol Patronatuko kontseilukideei, Donostia Kultura EEPko kontseilukideei eta egitasmoaren inguruan interesa agertu duten eragileei, guztien iritziak jaso ahal izateko egitasmo behin betikoa itxi aurretik

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que presente a los consejeros y consejeras del Patronato de Deportes, a los de la EPE Donostia Kultura y a los y las agentes que han mostrado interés, el proyecto para convertir Illunbe en un espacio multiusos, y recabar así las opiniones de todos y todas ellas antes de cerrar definitivamente el proyecto.

Donostian, 2018ko urriaren 19an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

San Sebastián, 19 de octubre de 2018

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
concejala delegada de EH Bildu".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**2. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**2. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.3. Kontrol mozioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, hirian kale gorrian bizi diren pertsonak direla eta.**

“Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2018ko urriaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2016ko urriaren 26an, Kale Gorrian izeneko ekimena burutu zen EAEko 24 udalerritan, aldi berean, kale gorrian dauden pertsonen zenbaketa egiteko helburuarekin.

Donostiaren kasuan, 44 pertsona zenbatu ziren, baliabideetan lo egiten duten pertsonak kontuan izan gabe. Baina hiriko baliabide sozialetan lo egiten ari ziren pertsonak zenbatzen baditugu, 300 pertsona baino gehiagok gure hiran etxerik ez dutela ondorioztatuko genuke.

Aurten, kontaketa urriaren 18an izan da. Abegi

**II.2.3. Moción de control que presenta el Grupo EH BILDU sobre las personas que viven en la calle en la ciudad.**

“Olaia Duarte López, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción para que sea tratada en el Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas del 15 de octubre de 2018.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de octubre de 2016, se llevó a cabo una iniciativa denominada Kale Gorrian, en 24 municipios de la CAV simultáneamente, con el objetivo de saber cuántas personas viven en la calle en nuestra comunidad.

En el caso de San Sebastián, se contó 44 personas, a parte de las que viven en los recursos que se ofrecen para ello en la ciudad. Si sumamos a este número las personas que en aquellos momentos pernoctaban en los recursos sociales de San Sebastián, observamos que más de 300 personas que viven en nuestra ciudad no tienen techo.

El último recuento se ha realizado el 18 de

zerbitzuetan lan egiten duten profesionalek dagoeneko adierazi dute kale gorrian bizi direnen kopuruak goranzko joera duela. Egoera honen adibide batzuk aipatzeagatik, Antiguan 14 pertsona daude etxerik gabe (2016ko kontaketan ez zen inor ikusi kale egoeran) eta Caritasek gestionatzen duen Aterpean 78 pertsonako itxaron zerrenda dago.

octubre. Las y los profesionales que trabajan en los servicios de acogida han manifestado que el número de personas que vive en la calle tiende a aumentar. Por citar algún ejemplo, en el Antiguo hay 14 personas sin hogar (en el recuento que se realizó en 2016, no se observó que hubiera nadie en situación de calle) y, en el albergue gestionado por Cáritas, hay 78 personas en lista de espera.

Honen harira, Udal Gobernuak etxerik gabekoentzako zerbitzuen inguruko hainbat kontrol mozio onartu ditu urtean zehar.

A lo largo del año, el Gobierno Municipal ha aprobado varias mociones de control relativas a los servicios que se ofrecen a las personas sin hogar.

Urtarrileko udalbatzarrean honako hau onartu genuen:

En el Pleno de enero, se adoptaron los siguientes acuerdos:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza bat egin dezala bazterkeria egoeran dauden pertsonentzako 14 plazak ezartzeko bide-orria zehaztuz.

1.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que elabore un cronograma y un plan en el que se detalle la hoja de ruta para la implantación de las 14 plazas destinadas a personas en situación de exclusión social.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kronograma eta plangintza hori udal talde guztiokin parteka dezala.

2.- El Pleno insta al Gobierno Municipal a que comparta el cronograma y el plan señalados en el punto anterior con todos los grupos políticos.

Eta maiatzeko udalbatzarrean honako kontrol mozio hau:

Y, en el de mayo, se aprobó la siguiente moción de control:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Gizarte Zerbitzuen Zorroak bazterkeria eta kale egoeran bizi diren pertsonentzat jasotzen dituen baliabideak martxan jar ditzala lehenbailehen.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que ponga en marcha lo antes posible los recursos que recoge la Cartera de Servicios Sociales para las personas que viven en situación de exclusión y de calle.

2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari udal taldeekin eta etxegabekoekin lan egiten duten eragileekin lan saio bat egin dezala Etxegabeentzako Euskal Estrategiak Donostian izango duen eragina azaltzeko.

2.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que convoque una sesión de trabajo en la que participen tanto los grupos municipales como las y los agentes que trabajan con personas sin hogar, para explicar la incidencia que tendrá en San Sebastián la Estrategia Vasca para Personas sin Hogar.

3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari urtarrileko udalbatzarrean aho batez onartutako mozioak jasotakoa bete dezala.

Urriko batzordeetan, delegatuak aitortu zuen aurreko bi mozioetan jasotako neurriak ez direla bete, nahiz eta Udal Gobernuaren plangintzaren barruan egon, eta denbora gehiago behar dutela egitasmo horiek burutzeko.

Gaur egun, gizarte zerbitzuen zorroaren arabera, Donostiak hutsuneak ditu egoera larrienean bizi diren pertsonen atentzioan. “Kale gorrian” taldearen bidez antolatutako kontaketak agerian uzten ditu hutsune horiek eta gizarteratze baliabideen falta.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, 2018ko kale kontaketaren datuak erabiliz, Donostiako kaleetan bizi diren pertsonak artatzeko beharrezkoak diren zerbitzuen eta plaza kopuruaren estimazio bat egin dezala.

Donostian, 2018ko urriaren 19an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”.

3.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que cumpla el contenido de la moción aprobada por unanimidad en el Pleno de enero.

En las comisiones de octubre, la persona que ostenta la concejalía delegada ha reconocido que las medidas aprobadas en las dos mociones anteriores no se han cumplido, aunque formen parte de la planificación del Gobierno Municipal, y ha añadido que necesitan más tiempo para llevar a cabo estos proyectos.

Hoy en día, según la Cartera de Servicios Sociales, San Sebastián tiene carencias en lo que respecta a la atención que se da a las personas que viven las situaciones más graves. El recuento organizado por el grupo “Kale Gorrian” pone de manifiesto las carencias citadas y la falta de recursos para la integración social.

Por todo lo anteriormente expuesto, la concejala abajo firmante presenta la siguiente MOCIÓN:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, basándose en los datos del recuento callejero de 2018, haga una estimación de la cantidad de servicios y plazas que se necesitan en San Sebastián para atender a las personas que viven en la calle en nuestra ciudad.

San Sebastián, 19 de octubre de 2018

Olaia Duarte López,
concejala del grupo municipal EH Bildu”.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.4. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Etxegintzari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordeak urriaren 15ean izan zuen bileran Etxegintzaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko irailean egindako azken Osoko Bilkuran, etxebizitzari eta alokairuaren arazoari buruzko mozioa eztabaidatzekoan, Hirigintza arloko zinegotzi ordezkariak azaldu zuen luze gabe aurkeztuko zirela Etxegintza udal baliabideak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko proposamen batzuk.

Deigarria da halako iragarpena Udalbatzaren osoko bilkura batean egitea eta horri buruzko informazio gehiago ez ematea, nahiz eta herritarren eskaera nagusietako bat eta Donostiak daukan egiturazko gabezia handienetako izan.

Handik egun gutxira, urraren 10ean, zehatzago esanda, Etxegintza baltzuaren bilerarako deia

**II.2.4. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre Etxegintza.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, celebrada el día 15 de Octubre de 2018, relativa a Etxegintza

JUSTIFICACIÓN

En el último Pleno, celebrado en el mes de septiembre de 2018, en el marco del debate de una Moción sobre la vivienda y el problema del alquiler, el Concejal Delegado de Urbanismo señaló que en breve se iban a presentar diversas propuestas tendentes a mejorar el servicio que ofrece el recurso municipal Etxegintza.

Resulta sorprendente que se haga este anuncio en un Pleno municipal y no se dé más información al respecto, cuando estamos ante una de las principales demandas ciudadanas y carencias estructurales que tiene San Sebastián.

A los días, concretamente el pasado 10 de octubre se convocó la Sociedad de Etxegintza

egin zuten, gai zerrenda hauxe zela:

1.- Aprobación del acta de la sesión celebrada el 7 de junio de 2018.

2º Declaración de mejor oferta en el procedimiento de adjudicación del contrato de obras de un edificio de apartamentos para personas mayores en Intxaurrondo.

3º Dar cuenta de resolución del Presidente de la adjudicación de contrato de arrendamiento de local para albergar las oficinas de Etxegintza.

4º Cambio de domicilio social de la Entidad.

5º Otorgamiento de facultades para negociación acerca de la resolución del contrato de alquiler del local de calle Ramón María Lilí.

6º Aplicación en la Entidad del incremento retributivo aprobado para el personal municipal.

7º Incremento de la plantilla de Donostiako Etxegintza.

8º Convenio con CEAR para la cesión de una vivienda para el programa de acogida a refugiados.

9º Ruegos y preguntas.

Hala, zinegotziari Batzordean galdetu, eta ez zigun ezeren berritasunik eta proposamenik adierazi, eta, ematen du, zera zela iragarpen handia: plantilla handitu beharra, beste 6 pertsona hartuta. Gai hori, ordea, kontseilu horretan garen oposizioko taldeetako kideei ezeren azalpenik eman gabe eraman zuten Etxegintzaren administrazio kontseilura.

Berrogeita bat hilabete kudeatzen aritu eta

con el siguiente Orden del Día:

1º Aprobación del acta de la reunión del 7 de junio de 2018.

2º Declaración de mejor oferta en el procedimiento de adjudicación del contrato de obras de un edificio de apartamentos para personas mayores en Intxaurrondo.

3º Dar cuenta de resolución del Presidente de la adjudicación de contrato de arrendamiento de local para albergar las oficinas de Etxegintza.

4º Cambio de domicilio social de la Entidad.

5º Otorgamiento de facultades para negociación acerca de la resolución del contrato de alquiler del local de calle Ramón María Lilí.

6º Aplicación en la Entidad del incremento retributivo aprobado para el personal municipal.

7º Incremento de la plantilla de Donostiako Etxegintza.

8º Convenio con CEAR para la cesión de una vivienda para el programa de acogida a refugiados.

9º Ruegos y preguntas.

Preguntado el Delegado en la Comisión no aportó ninguna novedad ni propuesta, y parece que el gran anuncio era la necesidad de incrementar la plantilla en 6 personas, asunto que se llevó al Consejo de Administración de Etxegintza sin explicar nada a los miembros de la oposición que formamos parte de ese Consejo.

Después de 41 meses de gestión le vamos a

gero, datozen hilabete hauetan Etxegintzako administrazio kontseiluari txosten bat aurkezteko eskatu behar diogu zinegotzi ordezkariari, 2015-2019 gobernu programan jarritako helburuak (ukigarriak eta ukigarriak ez direnak) zehaztu eta haiek zenbateraino bete diren erakutsiko duena, legealdiko kontu-garbiketa bat egiteko modua izan dezagun. Hori dela eta, hauxe da Talde Popularraren MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Etxebizitzako zinegotzi eskuordedunari kudeaketa balantze bat aurkezteko datozen hilabete hauetan Etxegintzako administrazio kontseiluari, 2015-2019 gobernu programan jarritakoaz egin duen kudeaketarena.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

solicitar la Concejal Delegado que presente en los próximos meses en el Consejo de Administración de Etxegintza un informe con los objetivos (tangibles e intangibles) que se marcaban en el Programa de Gobierno 2015-2019 y el grado de ejecución de los mismos para poder hacer así un balance de la legislatura, por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Concejal Delegado de Vivienda a que presente en el Consejo Administración de Etxegintza en los próximos meses un balance de su gestión con respecto a lo anunciado y recogido en el programa de Gobierno 2015-2019.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Octubre de 2018

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Miren Albistur Garmendia andreak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora D.ª Miren Albistur Garmendia, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.5. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, barrutiari buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Jose Luis Arrue

**II.2.5. Moción de control que presenta el Grupo PP sobre los Distritos.**

“D. José Luis Arrue Pintó Concejal del Grupo

Pintó jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Zerbitzu Orokorren Batzordeak 2018ko urriaren 15ean izan zuen bileran ekialdeko barrutiari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko martxoaren 26an onartu zen Barrutien Araudi Organikoa, eta, xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, legealdiaren hondarrean zen abian jartzekoa Ekialdeko Barrutia, eta gainerakoak, berriz, 2015-2019 legegintzaldian. Aurreikuspen hori irailean bete da.

Bigarren aurreikuspena, ordea, gainerako barrutiak martxan jartzekoa, ez da beteko. Hala aitortu zuen zinegotzi ordezkariak batzordean. Hain zuzen, esan zuen agintaldi honetan besterik ez dutela egingo, lehen barrutia finkatzen ari delako eta hori esperientzia pilotu gisa erabiliko dutelako.

Gure araudiak betetzea kontu garrantzitsua eta lehentasunezkoa da Udal honentzat, eta ezin da gehiago atzeratu gure araudian jasota dauden gainerako barrutiak abian jartzeko epea. Horretarako arrazoiak honako hauek dira:

• Arauak betetzea nahitaezkoa da, ez hautazkoa edo aukerakoa.

• Ezin ditugu eduki herritar batzuk partaidetza eta deszentralizazio sistema jakin batzuekin, eta besteak, gehienak, halakorik gabe.

• Gobernu Taldearen programak berak honako hau dio 108. orrian: “Lurraldeen parte-hartzearen eta deszentralizazioaren eta udal-kudeaketa eraginkor eta erantzukidearen alde

Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Servicios Generales, celebrada el día 15 de Octubre de 2018, sobre los Distritos.

JUSTIFICACIÓN

El 26 de marzo de 2015 se aprobó el Reglamento Orgánico de Distritos que en su Disposición Adicional preveía la puesta en marcha del Distrito Este en lo quedaba de legislatura y los demás en la legislatura 2015-2019. Aquella previsión se acaba de cumplir el pasado mes de septiembre.

Sin embargo la segunda previsión, puesta en marcha de los demás Distritos, no se va a cumplir. Así lo reconoció la Delegada quien en comisión nos manifestó que no se va a hacer más en esta legislatura, dado que el primer Distrito se encuentra en fase de consolidación y que serviría de experiencia piloto.

El cumplimiento de nuestros propios reglamentos es una cuestión capital y prioritaria para este Ayuntamiento y no puede dilatarse más en el tiempo la puesta en marcha del resto de los Distritos contemplados en nuestro reglamento y ello por las siguientes razones:

• El cumplimiento la normas es obligatorio y no potestativo u opcional.

• No podemos tener ciudadanos con unos sistemas de participación y descentralización y el resto, la mayoría, sin ellos.

• El propio programa del Equipo de Gobierno en su página 108, afirma literalmente :” Apostamos por la participación territorial y la descentralización, la eficacia y la

egingo dugu apustu; hiriko barrutiak jarriko dira indarrean”.

Hori dela eta, hauxe da PP taldeak dakarren MOZIOA:

Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari albait azkarren har ditzala gure hirian falta diren barrutiak martxan jartzeko neurriak, gure Barrutien Araudi Organikoak eta Gobernu Taldearen programak berak jasotzen duten bezala.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

José Luis Arrue Pintó,
Alderdi Popularreko zinegotzia".

corresponsabilidad en la gestión municipal que se traduce en la puesta en marcha de los distritos en la ciudad”.

Por cuanto antecede, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

El Ayuntamiento Pleno de Donostia/San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que en el plazo más breve de tiempo adopte las medidas necesarias para facilitar la puesta en marcha de los Distritos que faltan en nuestra ciudad, tal y como se recoge en nuestro reglamento Orgánico de Distritos y en el propio programa del Equipo de Gobierno.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Octubre de 2018

José Luis Arrue Pintó
Concejal del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Luis Arrue Pinto jaunak, Amaia Martin Garin andreak, Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga andreak eta Duñike Agirrezabalaga Ugarte andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D. José Luis Arrúe Pintó, D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga y D.ª Duñike Agirrezabalaga Ugarte, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 7 – (5) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.6. Kontrol mozio bateratua, EH BILDU eta IRABAZI DONOSTIA taldeek aurkeztua, Donostiako udal eraikinetako garbitze lanak kontratatzeari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek eta EH Bildu udal taldeko Naiara Sampedro Perez zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau egiten dute, 2018-09-17ko OGASUN BATZORDEAN jorratutako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

FCC Limpieza de Edificios y Locales enpresako batzordeak (enpresa hori da udal honen garbiketa zerbitzuaren esleipenduna) idatzi bat erregistratu zuen 2018ko uztailaren 11n, zeinaren bidez bilera bat eskatzen baitzuen enpresarekiko hitzarmen kolektiboak berritzeak eta lan baldintzekin, plaza hutsen esleipenarekin eta laneko osasunarekin lotutako beste zenbait kontuk sortu duten egoeraren berri emateko. Idazki honi erantsi behar zaio Enpresa Batzordeak urriaren 5ean egindako kontratuaren ardura duen zinegotzi ordezkariari zuzendutako bilera eskaera berria. Eskaera hori ez dute onartu oraindik.

Uztailean erregistratutako idatzian jasota dago Enpresa Batzordeak hainbat negoziazio bilera izan dituela zuzendaritzarekin, eta enpresa esleipendunak proposatzen duen gauza bakarra mehatxu bat da: soldatak izoztea eta aldi baterako ezintasunen osagarria % 5 murriztea.

Soldata baldintzei dagokienez, Enpresa

**II.2.6. Moción de control conjunta, presentada por los Grupos EH BILDU e IRABAZI DONOSTIA, sobre la contratación del “Servicio de limpieza de edificios municipales de Donostia".**

“Amaia Martin Garin, portavoz del grupo municipal de Irabazi Donostia, y Naiara Sampedro Perez, concejala del Grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL derivada de las interpelaciones en la COMISIÓN DE HACIENDA del pasado día 17-09-2018.

JUSTIFICACIÓN

El comité de empresa de FCC Limpieza de Edificios y Locales (adjudicataria del servicio de limpieza de este ayuntamiento), registró un escrito el 11 de julio de 2018, solicitando una reunión para trasladar la situación que se está dando en la renovación del convenio colectivo con la empresa y en otros puntos relativos a las condiciones de trabajo, la adjudicación de vacantes y la salud laboral, entre otros. A este escrito se debe de añadir la nueva solicitud de reunión dirigida al concejal delegado responsable del contrato realizada el pasado 5 de octubre por parte del Comité de Empresa, solicitud que continúa sin ser atendida.

En el escrito registrado en julio se recoge que el Comité de Empresa ha tenido ya varias reuniones de negociación con la dirección y que lo único que propone la empresa adjudicataria es una amenaza de congelación salarial y de recorte en un 5% del complemento de las incapacidades temporales.

En cuanto a condiciones salariales se refiere,

Batzordeak salatu du Udal honi zerbitzuak ematen dizkioten bi sektoretan dagoen diskriminazioa: Bideak Garbitzeko Zerbitzua (batez ere gizonek osatua) eta Eraikinak eta Lokalak Garbitzea (batez ere emakumeek osatzen dute) dira zerbitzuak. Lan mota bera egin behar da, eta bide garbiketako peoiaren eta eraikin eta lokalen garbitzailearen kategoria alderatzen baditugu, % 5,5 baino gehiagoko soldata tartea dagoela egiazta daiteke (bide garbiketako langileek jasotzen dituzten gaueko eta arrisku gehigarriak kenduta).

el Comité de Empresa denuncia la discriminación que existe en dos sectores que prestan sus servicios a este Ayuntamiento: el servicio de Limpieza Viaria (sector compuesto principalmente por hombres) y la Limpieza de Edificios y Locales (sector compuesto en su mayoría por mujeres). Se trata de la realización del mismo tipo de trabajo y, si comparamos la categoría de peón de limpieza viaria y la de limpiadora de edificios y locales, se puede constatar que hay una brecha salarial de mas de un 5,5% (descontando los pluses que perciben los trabajadores de la viaria por tenebrosidad-peligrosidad).

Langileek azaroan hasiko diren mobilizazioak egiteko beharra planteatu dute, enpresak bere jarrerari eutsiz gero. Udal eraikinak garbitzeko zerbitzuaren pleguak laster argitaratzekoak dira, beraz, garrantzitsua da lehenbailehen zerbait adostea.

Las trabajadoras han planteado la necesidad de realizar movilizaciones que empezarán en noviembre si la empresa mantiene su actitud. Los pliegos del servicio de limpieza de edificios municipales van a publicarse en breve por lo que es importante llegar acuerdos lo antes posible.

Horregatik guztiarengatik, ondorengo kontrol mozio hau aurkezten dugu

Por todo ello, presentamos la siguiente moción de control

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari datozen egunetan udal eraikin eta lokaletako langileen eskaturiko bilera bideratzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que en los próximos días atienda a la solicitud de reunión por parte de las trabajadoras de los edificios y locales municipales.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari beharrezko neurriak har ditzala, zerbitzuaren adjudikazio berriak udal eraikinen garbiketa zerbitzuko langileen lan baldintzak hobetzeko.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que tome las medidas necesarias con el fin de que la nueva adjudicación del servicio mejore las condiciones laborales de las trabajadoras del servicio de limpieza de edificios municipales.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari udal eraikinak eta lokalak

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno Municipal a

garbitzeko pleguak langileen batzordearekin aztertu ditzala, onartu eta esleitu aurretik.

que contraste los pliegos de limpieza de los edificios y locales municipales con el comité de trabajadoras antes de aprobarlos y adjudicarlos.

4. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari garbiketa sektore horretako soldata aldea kentzeko beharrezko neurriak aztertu eta hartu ditzala.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que analice y tome las medidas necesarias para que la brecha salarial en este sector de limpieza desaparezca.

5. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari ahaleginak egin ditzala kontratuaren jarraipena egiteko.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que redoble esfuerzos en el seguimiento de la ejecución del contrato.

Donostian, 2018ko urriaren 19an

Naiara Sampedro Perez,
EH Bildu taldeko zinegotzia

Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

Donostia a 19 de Octubre de 2018

Naiara Sampedro Perez
Concejala del Grupo EH Bildu

Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Naiara Sampedro Perez andreak, Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak eta Ernesto Gasco Gonzalo jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Naiara Sampedro Pérez, D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga y D. Ernesto Gasco Gonzalo, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**

AHO BATEZ.

UNANIMIDAD.

**6. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

**6. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

**6. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 3 – PP.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 3 – PP.

**6. KONTROL MOZIOAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.7. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako Elkarbizitzarako Plana dela eta.**

**KENDUA.**

**II.2.7. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el Plan para la convivencia de San Sebastián.**

**RETIRADA.**

---------------

**II.2.8. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko parkeetan kalistenia zirkuituak jartzeari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak 2018ko abenduaren 15ean izan zuen bileran hiriko parkeetan kalistenia zirkuituak jartzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Gure hirian asko dira aisialdirako lekuak, eta donostiar ugari maiz ibiltzen da horietan.

Legegintzaldi osoan zehar herritar askok eskatu dute leku horietako batzuetan mugikortasun elementuak jartzeko, batik bat gure hiriko nagusiek gozatzeko.

**II.2.8. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a la instalación de circuitos calistenia en parques de la ciudad.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Personas, celebrada el día 15 de diciembre de 2018, relativa a la instalación de circuitos calistenia en parques de la ciudad.

JUSTIFICACION

Contamos en nuestra ciudad con un buen número de lugares de esparcimiento, a los que muchos ciudadanos donostiarras acuden con asiduidad.

A lo largo de toda la legislatura han sido numerosas las peticiones por parte de los ciudadanos de incluir elementos de movilidad en algunos de ellos, principalmente para

disfrute de nuestros mayores.

Miramongo bizilagunen artean daukagu gisa honetako higigarrien aurrean herritarrek ageri duten interesaren erakusgarri bat; izan ere, iazko Uztailean kontsulta bat egin zitzaien, eta Juan Avelino Barriola eta Intxaurdegi arteko lursail publikoan kalistenia zirkuitu bat instalatzeko proposamena aukeratu zuten.

Uno de los ejemplos que muestra el interés por parte de la ciudadanía en este tipo de mobiliario, lo tenemos en los vecinos de Miramón, los cuales fueron llamados a consulta en el mes de julio del pasado año y optaron, como propuesta, por la instalación de un circuito de calistenia en la parcela pública situada entre Juan Avelino Barriola e Intxaurdegi.

Orain hurrengo batzordean, zinegotzi eskuordedunak erantzun zigun gaur gaurkoz Intxaurrondon beste inon ere ez dagoela zirkuitu horiek jartzeko aurreikuspenik, ez dagoela beste inon jartzeko asmorik.

En la pasada comisión, el Concejal Delegado respondió que, a día de hoy, no está previsto más que incorporar este tipo de circuitos en Intxaurrondo, y que no contemplaban ninguna otra ubicación.

Ez dugu ulertzen, ordea, nola Donostia bezalako hiri batean, 65 urte baino gehiagoko jendea urtetik urtera ugaritu eta ugaritu ari den hiri batean, beste hiri batzuetan horren gauza normala dena —era honetako instalazioak jartzea—, jartzeko pentsamendurik ere ez den hemen.

En una ciudad como San Sebastián donde el porcentaje de población mayor de 65 años, no hace sino crecer año tras año, no entendemos que algo tan usual en otros municipios como este tipo de instalaciones no estén, siquiera, contempladas.

Espainiako beste toki batzuetan askoz arruntagoa da parkeen aisialdi guneetan era honetako zirkuituak izatea.

En el resto de España son más que frecuentes los parques que destinan parte de su zona de esparcimiento a estos circuitos.

Kontuan izan behar dugu parkeak, haurrak jolasean ibiltzeko tokiak ez eze, adineko pertsonak elkarrekin topo egiteko, kanpo librean lasai egoteko eta pertsona horiek dituzten beharretara egokitutako kiroletan debalde aritzeko tokiak ere badirela. Eta ez adineko pertsonentzako bakarrik, zeren eta mugikortasuna murriztuta duten pertsonek ere erabiltzen baitituzte era horretako instalazioak; pertsona horiek, indar handirik egiten aritu beharrik gabe, gailu egoki batzuen bidez, kirola kanpo librean egiteko pentsatuta baitaude leku horiek.

Debemos saber que los parques, además de lugares de entretenimiento infantil, son un lugar de encuentro, sitios donde nuestra población de mayores puede libremente y, sin coste alguno, estar al aire libre y practicar deporte adaptado a sus necesidades. Y no solo ellos, ya que personas con movilidad reducida son, también, usuarios objetivos de estas instalaciones, ya que están orientadas a que con poco esfuerzo, y con los aparatos adecuados, estas personas puedan disfrutar del deporte al aire libre, sin grandes esfuerzos.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularrak era horretako neurriak bultzatzeko asmoz dakarren MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari azterketa bat egiteko udalerriko zer parkek hartu dezakeen horrelako zirkuitu bat ikusteko.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari lehenbailehen jartzeko horrelako zirkuitu bat Intxaurrondoko parkean.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari Intxaurdegiko lursailean ere jartzeko horrelako zirkuitu bat, Miramongo bizilagunek 2017ko uztailaren egindako galdeketan eskatu zuten bezala.

4.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari “Donostia Lagunkoia” programan osasunarentzako gauza onen artean sartzeko adineko pertsonek ariketa klase hauek egitea.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Con ánimo de impulsar medidas en este sentido, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que realice un estudio de los parques de la ciudad susceptibles de acoger este tipo de circuitos.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad, se realice la instalación de un circuito en el parque de Intxaurrondo.

3.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se instale dicho circuito en la parcela Intxaurdegi, tal y como solicitaron los vecinos de Miramón tras la consulta popular realizada en Julio de 2017.

4.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que se incorpore como elemento saludable la práctica de estos ejercicios entre perosnas mayores, en su programa “Donostia Lagunkoia- San Sebastián Amigable”.

En Donostia- San Sebastián, a 19 de Octubre de 2019

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Martin Ibabe Eceiza jaunak, Amaia Martin Garin andreak eta Olaia Duarte Lopez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/as señores/as D. José María Murguiondo Casal, D. Martin Ibabe Eceiza, D.ª Amaia Martín Garín y D.ª Olaia Duarte López, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**8. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**

**ABSTENTZIOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**ABSTENCIONES: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**

**8. KONTROL MOZIOAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 – (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.9. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, Kanpandegi kaleko eraikin bat okupatzeari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko urtarrilaren 15ean izan zuen bileran Kanpandegi kaleko eraikin bat okupatzeaz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo irailaren 2an Kanpandegi kaleko 2. zenbakian dagoen udal eraikin bat legez kanpo okupatzeko erabakia hartu zuen pertsona talde batek. Eraikinak urteak daramatza hutsik, baina gaur egun ere hezkuntza erabilerekin lotzen da, Orixe ikastolako ikasleak hartu baitzituen bere garaian.

**II.2.9. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a la ocupación de un inmueble en la Calle Campanario.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 15 de Enero de 2018, relativa a la ocupación de un inmueble en la Calle Campanario.

JUSTIFICACIÓN

El 2 de septiembre de este año, un grupo de personas decidieron ocupar ilegalmente un edificio municipal ubicado en la Calle Campanario número 2. Se trata de un edificio que lleva años vacío, que hoy en día sigue, aún, vinculado a usos educativos ya que, en su día, acogió alumnos de la ikastola Orixe.

Gobernu Taldeak gogoan du eraikin hori, eta orain dela hilabete batzuk aurkeztutako Etxebizitza Planean jasota dagoen bezala, bertan adintsuentzako apartamentu irisgarriak antolatzeko asmoa dago.

Joan den hilabetean horri buruzko galdera bat egun genion guk, Talde Popularrak, Gobernu Taldeari, eta higiezin horretatik okupatzaileak irtenarazteko prozedura abian jarri zela erantzun ziguten.

Hala, beste hilabete ere pasa arren Udal Gobernuak ez ziela gure hirian gertatzen ziren delituei kasurik egiten ikusita, berriz galdetu genion Gobernu Taldeari ea zergatik ez dituzten okupa horiek eraikin horretatik aterarazi.

Herritarren Segurtasuneko zinegotzi eskuordedunak batzordean esan zuen zer prozedura jarraitu aztertzen ari zirela, lege aldetik begiratu beharrekoa begiratu eta eraikina Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari atxikita dagoela ere kontuan hartuta.

Harrigarria da jarrera hori izatea Udal Gobernuko Segurtasun arduradunak; izan ere, denen hobe beharra begiratzea eta udal eraikin bat bipiltasun handiagoz babestea tokatzen baitzaio hari. Donostiar askok uste du, talde honek okupatu beharrean, ezker abertzalearekin zerikusirik ez duen kultur edo kirol elkarteren batek okupatu izan balu eraikina legez kontra, berehala ateraraziko zituztela handik; baina, ez dagoela ez exijentzia ez eta presa bera ere okupa talde honekin. Zer mezu ematen ari zio horrekin herritarrari?

Ez du ematen hau denik donostiar guztien hobe beharraren alde egiteko modurik onena. Izan ere, hala izango balitz, nahi duen guztiak

Este edificio está en mente del Equipo de Gobierno de cara a destinarlo para posibilitar apartamentos accesibles para mayores, como consta en el Plan de Vivienda presentado hace unos meses.

En el mes pasado, desde el Grupo Popular formulamos una pregunta al respecto al Equipo de Gobierno, quien señaló que se había iniciado el procedimiento para desalojar a los ocupas de este inmueble.

Pasado un mes más, y a la vista de la dejación que hace el Gobierno Municipal ante hechos delictivos producidos en nuestra ciudad, volvemos a interpelar al Equipo de Gobierno por los motivos por los cuales aún no se ha desalojado a estos ocupas.

El Concejal Delegado de Seguridad Ciudadana señaló en Comisión que están analizando el procedimiento a seguir, tras la correspondiente valoración jurídica, teniendo en cuenta que el inmueble sigue afecto al Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Sorprende esta posición viniendo del responsable de Seguridad del Gobierno Municipal, quien debiera preocuparse por velar por los intereses generales y proteger un inmueble municipal con mayor vehemencia. Muchos donostiarras entienden que si en lugar de este Grupo la ocupación ilegal hubiera provenido de cualquier asociación cultural o deportiva no ligada a la izquierda nacionalista, hubieran sido desalojados inmediatamente; sin embargo, no hay la misma exigencia ni celeridad con este grupo de ocupas. ¿Qué mensaje se está trasladando a la ciudadanía?

Esta no parece la mejor manera de defender los intereses generales de la ciudadanía donostiarra. Si así fuera, quedaría abierta la

libre izango luke udal eraikin bat okupatzeko bidea. Eta ez da hori, eta ezta gutxiagorik ere, Udal Gobernuko arduradun batek bidali behar duen mezua.

Herritar, klub eta elkarte asko dugu gure hirian Udal Gobernuak eman nahi dion udal lokal bat legez tokatzen den bezala hartzeko txandaren zain dagoena, pazientzia handiarekin egon ere; baina, inolaz ere ez legez kontra okupatzeko prest dagoena, Kanpandegi kaleko 2.eko okupatzaileek egin duten bezala.

Hala, zeinen egoera larria sortu den ikusi eta auzia lehenbailehen konpontzeko bidea izate aldera, hauxe da Talde Popularrak dakarren MOZIOA:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari lehenbailehen desblokeatzeko egoera, zer-nola jardun behar duten zehazteko, legez kontra hartutako Kanpandegi kaleko 2.eko udal eraikin hau husteko hartu behar diren neurriak hartzeko eta indarrean den legeria betetzeko.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

veda para ocupar edificios municipales a todo aquel que quisiera. Y no es este, precisamente, el mensaje que debe trasladar un responsable de Gobierno Municipal.

Existen muchos ciudadanos, clubes o asociaciones de todo tipo en esta ciudad que esperan pacientemente su turno para poder ser ubicados, de manera legal, en cualquier espacio municipal que el Gobierno tenga a bien ofrecerles sin recurrir, en ningún caso, a la ocupación ilegal, como sucede ahora mismo con los actuales moradores de Campanario, número 2.

Ante la grave situación creada, y en aras a poder resolver el conflicto a la mayor brevedad, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, a la mayor brevedad, desbloqueen la situación, definan ya la manera de actuar y pongan los medios necesarios para desocupar el inmueble municipal ocupado ilegalmente en la Calle Campanario, número 2, en cumplimiento de la legalidad vigente.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Octubre de 2018

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Naiara Sampedro Perez andreak, Ernesto Gasco Gonzalo jaunak eta Martin Ibabe Eceiza jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D.ª Naiara Sampedro Pérez, D. Ernesto Gasco Gonzalo y D. Martín Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.10. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, taxiaren sektorearen gainekoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak ematen dion babesa aintzakotzat hartu, eta MOZIO hau aurkeztu nahi dio Udalbatzari, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko urriaren 15ean izan zuen bileran taxiaren sektorearen gainean egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako taxiaren arloko ordezkariek gure hirian arloaren araubidea eguneratzeko eta hobetzeko premia mahai gaineratu dute. Araudia berrikusteko eskatzen dute; izan ere, joan den mendekoa da eta guztiz desfasatua dago, gizartearen bilakaera eta ezartzen ari diren ohitura berriak kontuan izanik.

Hala, adibidez, 1997. urtekoa da gure hirian arlo hau arautzen duen araudia: Ibilgailu Arinen bidezko Hiri eta Hiri arteko Garraio Zerbitzuak arautzen dituen Udal Araudia; alegia, hogei urte baino gehiago ditu araudi

**II.2.10. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa al sector del taxi.**

“Miren Albistur Garmendia, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 15 de Octubre de 2018, relativa al sector del taxi.

JUSTIFICACIÓN

Representantes del sector del taxi de San Sebastián han puesto encima de la mesa la necesidad de actualizar y mejorar la regulación del sector en nuestra ciudad. Reclaman una revisión del marco regulatorio, del siglo pasado, y absolutamente desfasado teniendo en cuenta la evolución de la sociedad y los nuevos hábitos que se imponen en la actualidad.

Así, por ejemplo, la normativa que regula el sector en nuestra ciudad, en concreto, el Reglamento Municipal de los Servicios Urbanos e Interurbanos de Transporte con Vehículos Ligeros es del año 1997, hace más

horrek, eta ez ditu jaso azken urteetako arau bidezko aurreikuspenak. Gainera, oraindik pezetatan daude adierazita prezioak edo diruzko kopuruak. Eta araudiak zaharkituta gelditu diren beste kasuetan jada ikusi dugun bezala, arazo batzuk sor litezke araudia aplikatzeko orduan.

Gauza asko gertatu dira orain dela hogei urte baino gehiago araudi hori argitaratu zenetik, eta aldatu egin da arloaren errealitatea; azken araudia txertatu eta aintzat hartu behar da; VTC eta halako figurak arautu behar dira; kontuan hartu behar dira ibilgailu jasangarriagoei edo ekologikoagoei dagokienez dauden joera berriak, ordaintzeko erak, bezeroen nahierara kalean geldialdiak egitea, ibilgailuen berrikuspena eta kopuru ekonomikoen eguneratzea eta eurotara ekartzea.

Gainera, aspalditik ari da gure hirian taxiaren sektorea arloarentzako mugikortasun plan espezifiko bat eskatzen, besteak beste, Udalak gutxiago kutsatzen duten ibilgailuen aldeko apustua egiteko, ibilgailuak berritzeko laguntzak lortzeko eta kalean ibilgailuak kargatzeko guneak antolatzeko.

Gure hiriko taxi erabiltzaile askok eta askok planteatu dute gure hirian une honetan taxiak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko eta eguneratzeko beharra. Talde Popularrak agintaldi honetan bertan eskatu dio Udal Gobernuari arazoari adarretatik heltzeko, baina oraingoz ez du ezer ikusgarririk egin. Otsailean galdetu genion Udal Gobernuari taxilariek eta herritarrek eskatzen duten berriskupen horretaz, eta erantzun zigun aztertzen ari zirela araudia nola berrikusi, oraingo beharren arabera eguneratzeko.

de veinte años, y no ha incorporado las previsiones normativas de los últimos años. Además, los precios o cantidades económicas aparecen, aún en pesetas. Lo que, como ya hemos visto en otros casos de normativa desfasada, puede traer una serie de problemas a la hora de aplicar la norma.

Desde la publicación del Reglamento, hace más de veinte años, han pasado muchas cosas, y ha variado la realidad del sector, que necesita incorporar y atender a la normativa más reciente, regular figuras como los VTC, atender las nuevas tendencias en cuanto a vehículos más sostenibles o ecológicos, medios de pago, paradas a demanda en la calle, revisión de los vehículos o actualización de cantidades económicas y su conversión en euros.

Además, el sector del taxi en nuestra ciudad viene solicitando, desde hace tiempo, un plan específico de movilidad para el sector, que ponga el foco en la apuesta del Ayuntamiento por vehículos menos contaminantes, la obtención de ayudas para renovación de la flota o adaptación de puntos de recarga en la calle, entre otras cuestiones.

Muchos usuarios del taxi en nuestra ciudad han puesto, también, encima de la mesa, la necesidad de mejorar y actualizar el servicio que el taxi ofrece, actualmente, en la ciudad. Desde el Grupo Popular hemos emplazado durante el presente mandato al Gobierno Municipal a ponerse las pilas al respecto, sin acciones visibles, hasta el momento. En febrero de este mismo año inquirimos al Gobierno Municipal sobre al necesaria revisión que vienen pidiendo taxistas y ciudadanos, y se nos dijo que estaban estudiando la revisión normativa para actualizarla a las necesidades actuales.

Urrian berriz galdetu diogu Udal Gobernuari arlo honetan izan diren aurrerapenei buruz, eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak emandako erantzuna ez da ezertxo ere aldatu otsailean iragarritakotik. Ez da ezer aurreratu arlo horretan, eta hori oso kezkagarria da. Sei hilabete falta dira agintaldia amaitzeko, eta Gobernu honek bere lau urtekoaren ondare gisa gutxiegi argi bat utziko du arlo honetan; beraz, datorren maiatzeko hauteskundeetatik ateratzen den gobernu berriak zuzendu beharko du egoera hau.

Este mismo mes de octubre hemos vuelto a preguntar al Gobierno Municipal sobre los avances en esta cuestión, y la respuesta de la Concejal Delegada de Movilidad no se ha apartado un milímetro de lo anunciado en el mes de febrero. No se ha avanzado nada al respecto, lo que es especialmente preocupante. Quedan seis meses para acabar la legislatura, y este Gobierno va a dejar como legado de sus ciuatro años un suspenso claro en esta materia, a expensas de que el nuevo Equipo que salga de las elecciones del próximo mes de mayo enmiende esta situación.

Agintaldi honetan, EAJ eta PSEk ez dute ezer egin taxiaren sektorearen inguruan. Ez dira kontuan hartu sektorearen proposamenak, ezta erabiltzaileenak ere, hala donostiarrek egindakoak nola bisitariek egindakoak, denek ere premiazkotzat jotzen baitute araudia aldatzea, zerbitzua XXI. mendeko beharretara eta mugikortasuneko erronka eta modalitate berrietara egokitzeko.

En todo este mandato, el PNV y el PSE no han hecho nada en relación al sector del taxi. No se han atendido las propuestas del sector ni las de los usuarios, tanto donosotiarras como visitantes que entienden urgente modificar la normativa para adaptar el servicio a las necesidades del siglo XXI, y a los nuevos retos y modalidades de movilidad.

Era berean, ez da ezer egin, nahiz eta hala eskatzen duten, taxien oraingo flota pixkanaka berritzeko eta gutxiago kutsatzen duten eta teknologia berriagoak erabiltzen dituzten ibilgailuak ekartzeko, beste hiri batzuetan egiten duten bezala eta Talde Popularra duela urte batzuetatik hona eskatzen ari den bezala. Bide publikoan ere ez da jarri ibilgailuak kargatzeko azpiegiturarik, hala taxiek nola bestelako ibilgailuen gidariek eskatzen duten bezala, Gobernuak ez baitu aintzat hartu haien eskaera.

En el mismo sentido, tampoco existe ningún avance sobre la demandada paulatina renovación de la flota actual de taxis hacia vehículos menos contaminantes y con tecnologías más limpias, como se hace en otras ciudades, y como venimos demandando hace años desde el Grupo Popular. Ni tampoco se ha avanzado en la instalación en vía pública de infraestructuras de carga que tanto taxis como otros vehículos demandan y que este Gobierno no atiende.

Horiek hala direla, eta Gobernu honek agintaldi hau amaitzeko falta diren hilabeteetan bere gobernu ekintza susta dezan, hauxe da Talde Popularrak aurkezten duen MOZIOA:

A la vista de todo lo anterior, y en aras de que este Gobierno impulse su acción de Gobierno en los meses que quedan para acabar este mandato, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari, 2018. urtea amaitu baino lehen, aurkez dezala txosten bat taxiaren sektoreak gure hirian dituen beharretara eta gaur egun dauden mugikortasun ohituretara egokitzeko araudia, hala merezi duten arloetan.

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, antes de que acabe el año 2018, presenten un informe con las cuestiones que merezcan una adaptación normativa de las necesidades del sector del taxi en nuestra ciudad a la realidad y a los hábitos de movilidad que rigen en la actualidad.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari sar dezala 2019ko udal aurrekontuetan kontu sail bat gure hirian taxien flota pixkanaka berritzeko eta energia alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuak ekartzeko.

2.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que incorporen, en los Presupuestos municipales para 2019, una partida económica para fomentar la paulatina renovación de la flota de taxis en nuestra ciudad hacia energías alternativas.

Donostia, 2018ko urriaren 19a

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Octubre de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak, Loïc Alejandro jaunak, Ayem Oskoz Urrutikoetxea jaunak eta Pilar Arana Perez andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. José María Murguiondo Casal, D. Loïc Alejandro, D. Ayem Oskoz Urrutikoetxea y D.ª Pilar Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**10. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 6 – EH BILDU.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 21 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 6 – EH BILDU.**

**10. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.11. Kontrol mozioa, PP taldeak aurkeztua, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruzkoa.**

“Talde Popularreko zinegotzi Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, MOZIO hau aurkeztu nahi du, Udalbatzan azter dadin, Gune Publikoen Batzordeak (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) 2018ko urriaren 15ean izan zuen bileran mugikortasun pertsonaleko ibilgailuei buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak asko ari dira ugaritzen gure hiriko kaleetan. Gero eta erabiltzaile gehiago mugitzen dira hirian barrena monoziklo, patinete, skate, longboard, hoverboard,

**II.2.11. Moción de control que presenta el Grupo PP relativa a los vehículos de movilidad personal.**

“Doña Miren Albistur Garmendia, concejal del grupo Popular, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en Pleno la siguiente MOCIÓN a consecuencia de la Interpelación substanciada ante la Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos, celebrada el día 15 de Octubre de 2018, relativa a los vehículos de movilidad personal.

JUSTIFICACIÓN

En los últimos años estamos asistiendo, en las calles de nuestra ciudad, a una importante proliferación de vehículos de movilidad personal. Cada vez más usuarios se desplazan por la ciudad a bordo de

segway eta bestelako ibilgailuetan, bai eta mugikortasun urriko pertsonen mugikortasunerako ibilgailuetan ere, era guztietako formatu eta barietateetan.

Erabiltzaile askok eta herritarrek, oro har, ez dute ezagutzen bide publikoan halako elementuak nola erabili arautzeko udal araudia, eta, fede onez (askotan), espaloia edota galtzada erabiltzen dute mugitzeko, Mugikortasuneko edo Udaltzaingoko agenteek isuna jar badiezaiekete ere horregatik. Hain zuzen, erabiltzaile batzuek salatu dutenez, denek ez dute irizpide berbera erabiltzen halako egoeretan eta isun desberdinak jartzen dituzte arau-hauste mota berberarengatik.

Beharbada, hori gertatzen da udal arauak berak, Donostiako Udalaren 2006. urteko Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantzak, zalantzarako bidea ematen duelako; izan ere, bereizten ditu patinak eta monopatinak, baina ez ditu jasotzen azken urteetan agertzen eta orokortzen joan diren beste ibilgailu batzuk.

Gaur egun, Udal Araudiak argi dio bidegorriak bizikletazaleek eta oinei egokitutako patinak daramatzatenek soilik erabil ditzaketela (47. artikulua), eta alde batera uzten ditu monopatinak eta beste era bateko ibilgailuak. Ordenantzaren 27. artikuluaren arabera, “monopatinak, motorrik gabeko patinak eta antzekoak horretarako berariaz seinaleztaturiko aldeetan baino ezin izango dira kirola egiteko tresna moduan erabili”. Eta espaloian oinezkoak soilik ibil daitezke. Hau da: oinezkoak, espaloian; bidegorrian, bizikletak eta patinak; eta monopatina, kirol erabilerarako soilik, skate parketan (gutxi daude hirian).

monociclos, patinetes, skates, longboards, hoverboards, segways u otros vehículos, como los destinados a la movilidad de personas con movilidad reducida, en sus diversos formatos y variedades.

Muchos de estos usuarios, y la ciudadanía, en general, desconocen la normativa municipal que regula el uso de este tipo de elementos en la vía pública y, actuando de buena fe (en muchas ocasiones), utilizan las aceras y/o calzadas para sus desplazamientos, con el riesgo de ser multados por los agentes de Movilidad o de la Guardia Municipal que, según denuncian algunos usuarios, difieren de criterio a la hora de abordar esta situación y de imponer las sanciones aparejadas a los diversos tipos de infracción.

Esto puede ser debido a que la propia norma municipal, la Ordenanza de Circulación de Vehículos y Peatones del Ayuntamiento de San Sebastián del año 2006, genera dudas y, además, se queda muy corta, ya que distingue entre patines y monopatines pero no recoge otro tipo de vehículos que han ido apareciendo en los últimos años y cuya utilización se viene generalizando por parte de la ciudadanía.

Actualmente, la normativa municipal recoge que las vías ciclistas sólo las pueden utilizar las bicicletas y los que lleven patines adaptados a los pies (artículo 47), excluyendo los monopatines y otro tipo de vehículos. Según el artículo 27 de la Ordenanza, “para uso deportivo los monopatines deberán utilizarse en los espacios habilitados expresamente para ello”. Y por la acera sólo pueden circular los peatones. Esto es: peatones, por la acera; por el bidegorri, bicis y patines; y el monopatín, sólo para uso deportivo en los skate parks (que hay pocos en la ciudad).

Garbi dago oraingo Ordenantza nabarmen zaharkitua dagoela, Talde Popularra aspalditik salatzen ari den bezala; izan ere, ez du jasotzen errealitatea, herritar askok erabiltzen baitituzte goian adierazitako ibilgailuetako asko hirian barrena mugitzeko.

Está claro que la Ordenanza actual queda claramente desfasada, como venimos denunciando en el Grupo Popular desde hace años, pues no recoge la realidad, y es que muchos ciudadanos utilizan muchos de los vehículos enunciados anteriormente poara sus desplazamientos por la ciudad.

Espainiako beste udalerri batzuetan, fenomeno hori jorratzen eta arautzen ari dira udal agintariak. Bartzelonak jadanik jaso du bere Udal Ordenantzan. Beste udalerri batzuek ere, hala nola Madrilek, Leonek, Zaragozak eta Caceresek, lanari ekin diote eta hainbat proposamen eta zirriborro prestatzen eta lantzen ari dira hiri mugikortasuneko errealitate berri horiek arautzeko.

En otros municipios de España las autoridades municipales están abordando y regulando el fenómeno. Barcelona ya ha recogido este fenómeno en su Ordenanza municipal. Otros municipios, como Madrid, León, Zaragoza o Cáceres, por ejemplo, también se han puesto manos a la obra y están elaborando y trabajando diversas propuestas y borradores para regular estas nuevas realidades de la movilidad urbana.

Donostian, ordea, nahiz eta errealitate hori egon badagoen eta herritarrek hala eskatzen duten, ez dirudi gure Udal Gobernuak errealitatera egokitu nahi duenik eta ez ikusi egiten dio. Talde Popularra 2015. urtetik ari da gobernu taldeari eskatzen zerbait egiteko eta mugikortasun ohitura berri horiek arautzeko, erabiltzaileei eta herritarrei, oro har, segurtasuna eta ziurtasuna emate aldera. Izan ere, zer gertatuko litzateke, esate baterako, espaloitik doan patinete elektriko batek oinezko bat harrapatuko balu? Zer erantzukizun izango luke alderdi bakoitzak? Zer erantzukizun izango lukete udal agintaritzek, hau da, Donostiako Udalak?

En San Sebastián, en cambio, pese a esta realidad, y a la petición de la ciudadanía, nuestro Gobierno Municipal no parece querer adaptarse a la realidad, y sigue ignorándola. En el Grupo Popular llevamos, desde el año 2015, solicitando al Equipo de Gobierno que mueva ficha y regule estos nuevos hábitos de movilidad para dotar de seguridad y certidumbre a sus usuarios, y la ciudadanía en general. Porque, por ejemplo, ¿qué sucedería si un patinete eléctrico que circula por la acera atropella a un peatón? ¿Qué responsabilidad tendrían las partes? ¿Qué responsabilidad recaería sobre las autoridades municipales, esto es, sobre el Ayuntamiento de San Sebastián?

Uste dugu beharrezkoa dela kalean gero eta normalagoa den hori arautzea eta errealitatera egokitzea, etorkizunean ere garatzen joango baita, Gobernu Talde honek nahi izan edo ez izan, eta nahiz eta ezer egin ez.

Creemos necesario regular y adaptar a la realidad lo que es cada vez más normal en la calle, y que va a seguir desarrollándose en el futuro, quiera o no este Equipo de Gobierno pese a su parálisis.

Jadanik 2015. urtean, Talde Popularrak

Ya en el año 2015 el Grupo Popular solicitó la

batzorde tekniko bat sortzeko eskatu zuen Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantza nola aldatu aztertzeko, araua errealitatera egokitu eta erabiltzaileen eta oro har herritarren artean segurtasuna sortze aldera.

creación de una Comisión técnica que analizara la modificación de la actual Ordenanza de Circulación de Vehículos y Peatones, de cara a adaptar la realidad a la norma, y generar seguridad entre usuarios y ciudadanía en general.

Urriko batzordean, berriz interpelatu dugu Gobernu Taldea honi buruz. Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariak adierazi du, oker, fenomeno berria dela hau, hiruzpalau urte daramatzala gure kaleetan (baina, esan dugun bezala, 2015etik ari gara eskatzen halako ibilgailuen erabilera arautzeko) eta oraindik ez daukatela datarik jarrita Ordenantza berrikusteko.

En la Comisión de este mismo mes de octubre, hemos vuelto a interpelar al Equipo de Gobierno sobre esta cuestión. La Concejal Delegada de Movilidad ha señalado, erróneamente, que este es un fenómeno nuevo, que lleva tres o cuatro meses en nuestras calles (cuando, como hemos dicho, desde 2015 llevamos pidiendo que se regulen estos vehículos), y que no hay fecha para la revisión de la Ordenanza.

Talde Popularrak uste du zume hauekin ezin dela saski hau baino egin, eta Gobernuak bultzatu eta proaktiboagoa izan behar duela; uste dugu eragile eta teknikariekin elkartu behar duela, ikusi eta aztertu jadanik egina dagoena eta Espainiako beste udalerri batzuetan egiten ari direna, eta proposamen bat aurkeztu behar duela Ordenantza albait azkarren aldatzeko, agintaldi hau amaitu aurretik eta EAJk eta PSEk beste gutxiegi bat izan aurretik, kasu honetan mugikortasun arlokoa; gainera, alor horretako nota oso baxua da berez.

Consideramos, desde el Grupo Popular, que con estos mimbres no se puede construir una cesta, que el Gobierno debe empujar y ser más proactivo; que deben reunirse con agentes y técnicos, observar y analizar lo que ya está hecho y lo que se está haciendo en otros municipios de España, y debe presentar una propuesta de modificación de la Ordenanza a la mayor brevedad, antes de que concluya el presente mandato y PNV y PSE acumulen otro suspenso más, en este caso en materia de movilidad donde la nota ya, de por sí, es muy baja.

Beste behin ere beharrezkoak diren arloak bultzatzeko eta araudia errealitatera egokitzeko, hauxe da Talde Popularrak aurkezten duen MOZIOA:

Con la vista puesta, una vez más, en impulsar materias necesarias y de adaptar la normativa a la realidad, es por lo que el Grupo Popular presenta la siguiente MOCIÓN:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die alkateari eta Gobernu Taldeari, 2018a amaitu baino lehen, aurkez diezaiela talde politikoei eta Mugikortasuneko Aholku Kontseiluko kideei Oinezkoen eta Ibilgailuen Zirkulaziorako Ordenantza aldatzeko proposamen bat, mugikortasun pertsonaleko

1.- El Ayuntamiento Pleno de Donostia-San Sebastián insta al Alcalde y al Equipo de Gobierno a que, antes de que acabe el año 2018, presenten a los grupos políticos y a los miembros del Consejo Asesor de Movilidad, una propuesta de modificación de la Ordenanza ce Circulación de Vehículos y

ibilgailuak ere arautzeko hartan, jadanik urteak baitaramatzate gure hiriko kalteetan.

Peatones, de cara a incorporar en la misma la regulación de los vehículos de movilidad personal que llevan años siendo una realidad en las calles de nuestra ciudad.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

En Donostia/ San Sebastián, a 19 de Octubre de 2018

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea".

Miren Albistur Garmendia
Portavoz del Grupo Popular".

Eztabaida hasita, Jose Maria Murguiondo Casal jaunak eta Loïc Alejandro jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los señores D. José María Murguiondo Casal y D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 25 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (6) EH BILDU, (3) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – IRABAZI DONOSTIA.**

---------------

**II.2.12. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, Udaletxearen aurreko zabaldegian izaten diren herritarren elkarretaratzeekin batera tokatzen diren ekitaldiak direla eta.**

**II.2.12. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, relativa a actos en la explanada del ayuntamiento coincidentes con concentraciones ciudadanas.**

“Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, Udaletxearen aurreko zabaldegian izaten diren herritarren elkarretaratzeekin batera tokatzen

“Loïc Alejandro, Concejal del Grupo municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL consecuencia de la interpelación en la Comisión de SERVICIOS GENERALES del

diren ekitaldiak direla eta Zerbitzu Orokorren Batzordeak hilabete honetan izandako bileran egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Euskaraldia ospatu genuen astelehenean, urriak 1ean, eta argazki bat egin zen Udaletxeko zabaldegiko eskaileretan. Aldi berean, bere asteroko kale agerraldia egin zuen Alderdi Ederren Pentsionisten Plataformak.

Kontzentrazio hartan zeuden asko eta asko minduta zeuden udal ordezkariek argazki bat egin zutelako pentsionisten legezko aldarrikapenen aurrean eta haiei inolako arretarik eskaini gabe. Udalaren irudi kaxkar samarra transmititzen du horrek, eta talde politiko guztiei eragiten die, zeinezkorik gabe.

Pentsionisten kontzentrazioan bildutako pertsonek ez zuten ulertu zergatik ez zen argazkia beste leku batean egin, edo ordu erdi geroago edo lehenago.

Hala, batzordean horren inguruan galdetu genionean, alkateak gogorarazi zuen Udalak eskubidea daukala zabaldegi hori ondoen iruditzen zaion moduan erabiltzeko, han inguruan izaten diren elkarretaratzeak goiti-beheiti. Eta hori hala da. Baina, gauza bat da eskubide bat izatea, eta beste bat behar adina enpatia izatea, gaizki interpretatzeko bidea ekartzeko moduko egoerarik ez izateko.

Alkatearen ustez, han entzundako oihu batzuk desegokiak ziren. Bakoitzak berak esango du oihu haiek gehiegizkoak edo errespetu falta gehixeago edo gutxixeagokoak iruditu zitzaizkion, eta bakoitzak ikusiko du sentsibilitate falta erakusten duen jokabidea izan zen edo ez. Baina, kezka eta amorrazio

presente mes, relativa a actos en la explanada del ayuntamiento coincidentes con concentraciones ciudadanas.

JUSTIFICACIÓN

El lunes 1 de octubre, celebramos el Euskaraldia y se realizó una foto en los escalones de la explanada del Ayuntamiento. Al mismo tiempo la Plataforma de Pensionistas de Alderdi Eder hacía su concentración semanal.

Muchas personas de la concentración se sintieron heridas por el hecho de que el consistorio salga a hacerse una foto justo delante de las reivindicaciones legítimas de los y las pensionistas, sin prestarle ninguna atención. Esto transmite una imagen bastante negativa del consistorio que afecta a todos los grupos políticos sin distinciones.

Personas de la concentración de pensionistas no entendieron por qué no se pudo hacer la foto en otro sitio, o media hora antes o después.

Interpelado en comisión, el Alcalde recordó que le consistorio está en su derecho de utilizar la explanada como mejor le parezca, independientemente de las concentraciones que puedan organizarse en su entorno. Y es cierto. Pero una cosa es disponer de un derecho, y otra es tener la suficiente empatía para evitar situaciones que podrían interpretarse de forma negativa.

En opinión del Alcalde, ese día, algunos gritos eran fuera de lugar. Cada uno y cada una podrá opinar si fueron más o menos exagerados o irrespetuosos, y cada uno y cada una podrá considerar que fue una actitud que demuestra falta de sensibilidad. Pero eran ciudadanos y ciudadanas preocupadas y

handia zuten herritarrak ziren haiek. Eta minutu batzuk ateratzea, argazki bat egitera, herritarrei kezka handia ematen dien gai bat dela eta elkartuta dauden pertsona batzuen aurrera, haiei batere kasurik egin gabe, sentsibilitate falta irudituko zaio baten bati.

Zeinek erakutsi behar luke, politikariek baino gehiago, sentsibilitate eredugarri bat?

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari herritarren mobilizazioekin toki eta/edo garai berean ez tokatzeko moduan antolatzeko Udalaren ekitaldiak, baldin eta gai berari buruzkoak ez badira behintzat.

Donostian, 2018ko urriaren 19an.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia".

exasperadas. Y salir unos minutos para hacerse una foto en frente de una concentración reunida por un motivo de alta preocupación para la ciudadanía, sin hacerle nada de caso, puede percibirse también como una falta de sensibilidad.

¿quién, más que los y las políticas, deberían mostrar una sensibilidad ejemplar?

Por todo ello, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián al Gobierno municipal a organizar los actos municipales de forma que no coincidan geográficamente y/o temporalmente con movilizaciones ciudadanas, si no comparten la misma temática.

Donostia a 19 de Octubre de 2018

Fdo.: Loïc Alejandro
Concejal del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Loïc Alejandro jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el señor D. Loïc Alejandro, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.13. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, garapenerako lankidetzari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako Batzordean garapenerako lankidetzari buruz aztertutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Nazioartean zein gure ingurune hurbilenean, sistema ekonomiko kapitalistak, egungo fasean, polarizazio progresibo bat dakar. Ekoizpen baliabideen jabeek, boteretsuek, gehiengo soziala diren langileak ustiatzearen ondorioz sortzen den desoreka sozial eta ekonomiko handiaren emaitza da polarizazio hori.

Gaur egun, planetako biztanleen % 10ek du aberastasunaren % 88, eta pobreenak % 1 baino ez. Kontzentrazio handiena ez dago, ordea, % 1ean, baizik eta % 0,1ean.

Gaur egungo egoera Bigarren Mundu Gerraz geroztik izan den krisi humanitariorik larrientzat jo da. 68 milioi pertsonak baino gehiagok alde egin behar izan zuten beren etxeetatik iaz, gerra, indarkeria eta bestelako jazarpen mota batzuk zirela eta. Azpimarratu behar da gizarte erakundeek, aurten, klima aldaketak pertsonengan dituen ondorioetan ere jarri dutela fokua. Izan ere, klima aldaketa da, gaur egun, munduko migrazioen lehen kausa, eta gaur egungo sistema sozioekonomiko kapitalistak eragiten du hori.

**II.2.13. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, en relación con la cooperación al desarrollo.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en Comisión el presente mes, en relación con la cooperación al desarrollo.

JUSTIFICACIÓN

Tanto a nivel internacional como en nuestro entorno más cercano, el sistema económico capitalista en su fase actual se enmarca en una progresiva polarización fruto del desequilibrio social y económico que se deriva de la explotación que llevan a cabo los poseedores de los medios de producción, los poderosos, sobre la mayoría social trabajadora.

Hoy el 10% de la población del planeta posee el 88% de la riqueza, mientras que el 50% más pobre sólo tiene el 1%. La concentración máxima se produce no ya en el 1% sino en el 0,1%.

La situación actual se ha calificado ya como la mayor crisis humanitaria desde la Segunda Guerra Mundial. Más de 68 millones de personas se han visto forzadas a huir de sus hogares el pasado año como resultado de la guerra, la violencia y otras formas de persecución. Cabe destacar que las organizaciones sociales este año han puesto el foco también en las consecuencias que el cambio climático tiene sobre las personas, un cambio climático que es a día de hoy la primera causa de migraciones en el mundo y está causado por el sistema socioeconómico capitalista actual.

Era berean, salatu behar dugu miseriatik eta indarkeriatik ihesi doazen migratzaile horietako askori urratu egiten zaizkiela giza eskubideak, hala bidean nola helmugako herrialdeetan.

Mundu gero eta polarizatuago honetan, desberdintasunak hazten doazen mundu honetan, beharrezkoa da aberastasun globalaren birbanaketan aurrera egitea. Garapenerako Lankidetzari buruzko 2007ko Euskal Legeak administrazioei konpromiso bat ezartzen die arlo honetan; hain zuzen, 2012rako Euskadiko aurrekontuaren % 0,7a bideratzea horretara, eta joera hori BPGaren % 0,7 izatea.

Donostiak ere konpromiso hori betetzeko konpromisoa hartu zuen. Hala ere, egin diren aurrekontuetan inoiz ere ez da lortu % 0,7a ere.

Txirotasunaren eta gizarte bazterketaren aurkako borrokaren esparruan lan egiten duten erakunde sozialek diote handitu egin direla aldeak, eta ezinbestekoa dela inbertsio handiagoa egitea; inbertsio hori BPGaren % 1ekoa izatea planteatzen dute.

Era berean, erakundeen konpromisoak lankidetza horretarako aurrekontua konprometitzeaz harago joan behar du. Beharrezkoa da aipatutako polarizazio soziala amaitzea, aberastasuna birbanatzeko neurri fiskalak sartuz, paradisu fiskalen gaineko kontrola zerga iruzurrari aurre egiteko elementu gisa gehituz. Fiskalitatearen zulo beltzak dira paradisu fiskalak. Horien bidez, milaka milioi euro desagertzen dira, eta diru hori herritarrentzat, bereziki pertsona ahulenentzat, politika sozialak eta zerbitzu publikoak finantzatzeko erabili beharko

Igualmente, debemos denunciar que muchas de estas personas migrantes que huyen de la miseria y la violencia están sufriendo violaciones de derechos humanos tanto en el tránsito como en los países de destino.

En un mundo cada vez más polarizado, en donde crecen las desigualdades, es preciso avanzar en la redistribución de la riqueza global. La ley vasca de cooperación de 2007 acordó el compromiso de las administraciones en esta materia, de tal modo que para 2012 estaba previsto destinar el 0,7% del presupuesto de Euskadi, recogiendo que la tendencia debía ser del 0,7% del PIB.

Donostia igualmente se comprometió a cumplir también con este compromiso. Sin embargo, los presupuestos que se han llevado a cabo en ningún caso han alcanzado siquiera el 0,7% del presupuesto municipal.

Las organizaciones sociales que trabajan en el ámbito de la lucha contra la pobreza y la exclusión social mantienen que las desigualdades han aumentado, de modo que se hace necesaria una mayor inversión, planteando que ésta sea del 1% del PIB.

De igual modo, el compromiso de las instituciones debe ir más allá de comprometer presupuesto para la citada cooperación. Es preciso poner fin a la citada polarización social, incorporando medidas fiscales redistributivas de la riqueza, incrementando el control sobre los paraísos fiscales como un elemento vertebrador de la lucha contra el fraude fiscal. Los paraísos fiscales son los agujeros negros de la fiscalidad. A través de ellos, desaparecen miles de millones de euros que deberían destinarse a financiar políticas sociales y servicios públicos necesarios para

litzateke. Beste inpaktu sozial negatibo batzuk ere badituzte, hala nola enplegua suntsitzea eta gizartearen polarizazioa.

Neurri horiek beharrezkoak eta eraginkorrak dira tokiko mailan, eraldaketa global baterako.

Horiek guztiak horrela, hau da nire

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari garapenerako lankidetzara bidera dezala hurrengo udal aurrekontuaren % 0,7a, Lankidetzaren Euskal Legea betetzeko.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari susta dezala paradisu fiskalik gabeko kontratazio publiko bat.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala informazio kanpaina bat enpresei eta herritarrei ikusarazteko zerga aldetik arduratsuak izan behar dutela, baldin eta diru laguntzak, laguntzak edota kontratu publikoak lortu nahi badituzte.

Donostia, 2018ko urriaren 19a

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia taldearen bozeramailea".

la ciudadanía, especialmente para las personas más vulnerables. Y también tienen otros impactos sociales negativos como la destrucción de empleo y la polarización social.

Estas medidas son necesarias y efectivas a nivel local para una transformación global.

Por todo lo anteriormente expuesto, presentamos la siguiente:

MOCION DE CONTROL

1. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a destinar el 0,7% del próximo presupuesto municipal a cooperación al desarrollo, de tal modo que cumpla con la ley vasca de cooperación.

2. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a impulsar una contratación pública libre de paraísos fiscales.

3. El Ayuntamiento Pleno de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a desarrollar una campaña informativa que visibilice la necesidad de empresas y ciudadanía de ser fiscalmente responsables si pretenden recibir subvenciones, ayudas y/o contratos públicos.

Donostia a 19 de octubre de 2018

Fdo.: Amaia Martin Garin
Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia".

Eztabaida hasita, Amaia Martin Garin andreak, Olaia Duarte Lopez andreak eta Jaime Dominguez-Macaya Laurnaga jaunak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto el/las señor/as D.ª Amaia Martín Garín, D.ª Olaia Duarte López y D. Jaime Domínguez-Macaya Laurnaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**13. KONTROL MOZIOAREN 1.GO PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 3 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 16 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 3 – PP.**

**13. KONTROL MOZIOAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**13. KONTROL MOZIOAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA MOCIÓN DE CONTROL N.º 13:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

**ALDEKO BOTOAK: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**VOTOS A FAVOR: 8 – (6) EH BILDU, (2) IRABAZI DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 19 – (9) EAJ-PNV, (7) PSE-EE, (3) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**II.2.14. Kontrol mozioa, IRABAZI DONOSTIA taldeak aurkeztua, lurralde desorekei eta gizarte kohesioari buruzkoa.**

“Irabazi Donostia taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetako Batzordean hirian diren lurralde desorekei eta horrek gizarte kohesioan duen eraginari buruz aztertutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Hiriko errealitateari buruzko azken datuek erakusten dute areagotzen ari dela Donostiako alde batzuen eta besteen arteko desoreka. Hiriaren iazko datuak biltzen dituen Hiriko Ekonomiaren Barometroaren arabera, hiriaren ekialdeko auzoetan (Intxaurrondo, Altza eta Bidebieta) langabezia indizea % 12tik gorakoa da; hau da, hiriko batezbestekoa baino % 3 handiagoa da.

Hil honetako batzordean, Gasco jaunak udal talde honi adierazi zion “jakitun direla desberdintasunaren errealitatea historikoa dela auzo batzuen artean, baina (…) alde batera utzita pobrezia egoera edo poltsa espezifiko

**II.2.14. Moción de control, presentada por el Grupo IRABAZI DONOSTIA, en relación con los desequilibrios territoriales que se producen en la ciudad y su repercusión en la cohesión social.**

“Amaia Martin Garin, Portavoz del Grupo Municipal Irabazi Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL, consecuencia de la interpelación en Comisión el presente mes, en relación con los desequilibrios territoriales que se producen en la ciudad y su repercusión en la cohesión social.

JUSTIFICACIÓN

Los datos más recientes sobre la realidad de la ciudad confirman un problema relativo a un desequilibrio creciente entre unas zonas y otras de Donostia. Según el barómetro de economía urbana del pasado año, la población de la zona este de la ciudad, los barrios de Intxaurrondo, Altza y Bidebieta, cuenta con unos índices de desempleos superiores al 12% en todos los casos, un 3% superior a la media de la ciudad.

En la comisión del presente mes el señor Gasco trasladó al grupo municipal que “a pesar de ser conscientes de la realidad histórica de desigualdad entre algunos barrios, y (...) al margen de situaciones

batzuk, datuek nahiko egoera orekatua erakusten dutela", eta adierazi zuen, oker, diru sarrera gehien eta gutxien duten auzoen arteko aldea % 25ekoa dela. Batezbesteko errenta pertsonal erabilgarria, hiriko ekonomiaren iazko barometroaren arabera, 13.976 eurokoa da Altzan, eta 26.253 eurokoa Miramonen; hau da, Miramonen Altzan baino bi aldiz handiagoa da<0}

Hiriko lurralde desoreka hori beste datu batek ere erakusten du: merkataritza jarduerek eta hirian establezimenduek duten banaketak. Ekialdean ikusten dugu tokiko merkataritza desagertzen ari dela pixkanaka, batez ere txikizkako merkataritza; hain zuzen, txikizkako establezimenduak, urte bakarrean, % 3,1 gutxitu dira Intxaurrondon, % 4,7 Altzan eta % 6,7 Mirakruz-Bidebietan. Datu horiek ikusita, esan genezake egoera kezkagarria dela, eta horrek are gehiago larritzen dituela errealitatea oinarri hartuta guztion irudimenean ainguratzen ari diren desorekak.

Etxebizitza eskuratzeko arazoen eraginez, eta hiria turismora makurtuta egoteak ekarri duen eraldatze prozesuaren ondorioz hirian bizitzea gero eta garestiagoa denez, neurrigabe igo dira prezioak eta pertsona askok alde egin behar izan dute hiritik. Era berean, eta langileek osatutako gehiengo sozial bati eragiten dion krisi hamarkada baten ondoren, bizi baldintzak pixkanaka eskasten ari diren prozesu batean, bizitza duin bat izateko arazo larriak daude inguruko herri auzoetan.

Tokiko merkataritza tradizionalaren ordez, marka handien eredu monopolizatzaile bat ari da nagusitzen, eta horren ondorioz sortzen ari

